Jorge Nagore
Garaile Gipuzkoako lau t'erdiko irekian
KIROLA, 21

Bergarak geroz eta gertuago du jaitsiera
Aloña Mendiren aurka galdu ondoren, mailari eustea zail du
KIROLA, 14

Sharon Stoner
Diskoa grabatzen bukatu dute
KULTURA, 22-23

ASTELEHENEKO
Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko maiatzaren 2a • 2. urtea • 55. zenbakia • 0,90 euro

Ionut Zinca eta Alicia Olazabal izan ziren garaile atzo Aloñako I. Igoeran

Zincak jaitsieran aurreratu zuen Garin eta Alicia hasieratik izan zen nagusi

270 PARTE-HARTZAILE
Parte-hartze handia izan zuen Aloñako I. Igoerak; tartean 59 Debogoiendar egon ziren

EGURALDI APROPOSA
Zapatuko beroa ikusita, beldurra zegoen egin zezakeen beroarekin, baina eguraldia lagun izan zuten

ZALE ASKO ALOÑAN
Igoerak ikusmin handia sortu zuen eta ikusle ugari batu zen. Animatu ere asko egin zituzten korrikalariak

Probaren 16,5 kilometroak egiteko Ionut Zincak behar izan zituen 1:14:13ak maila handiko lasterketa izan zela erakusten du. Parte-hartzaile kopurua ere ez zen nolanahikoa izan, 270 korrikalari. Pozik azaldu ziren, gainera, igoeraren antolakuntzarekin. 16-17

OIHANA ELORTZA

Aloña Mendi jendez bete zen proba ikusteko. Arrakasta handia izan zuen lasterketak eta antolakuntzakoak benetan pozik geldi daitezke.

Sei bikote Munduko Futbolin Kopara

Asteburuan geurean jokatutako txapelketetan sailkatu dira

Maiatzaren 5etik 8ra Frantziko Eaubonne hirian jokatuko den Munduko Futbolin Koparako sailkatu dira ibarreko sei bikote. Asteburuan hainbat txapelketa jokatu dira geurean eta han sailkatu dira. Bikoteokin batera, Gipuzkoako eta Arabako beste hamabi ere sailkatu dira. 7

Turandot aurkeztu dute Bergaran

Helduendako aisialdi taldea da; zapatuan batzarra dute kultura-etxean 4

GEUREAN

• Arrasate eta Bergarako hainbat auzotan jaiak ospatu dituzte | 5
• Sindikatuek elkarretaratzeak deitu dituzte eguaztenerako | 7

Ane Loidirekin, Orotariko Euskal Hiztegiaren egileetako batekin, jardun dugu | 8

BERGARA | EUSKARA IKASTEKO LEHEN URRATSAK

Bergaran, etorkin bat baino gehiago domeketan euskara ikasteko prest

Astean lanpetuta ibiltzen dira, baina gure hizkuntza eta kultura hobeto ezagutzeko grina dute. Hasiak dira apunteak hartzen

AINTZANE AGIRRE

HABEk prestatutako AISA materialean oinarritutako "harrera ikastaroa" izango da.

Larraitz Zeberio

Hamabik eman dute izena, baina lehenengo eskolara lau besterik ez dira etorri. "Datorren astean hasiko dira gainerako guztiak". Maiatzaren 1a izanik, askok piper egin zuten, baina datorren domekan etorriko direla aginduta.

Zintzo lehen eskolara etorri direnak Isabel (Coruña), Abdelkrim (Maroko), Diouma (Senegal) eta Greg (Dublin) dira. Uztailera arte domeka goizero etorriko dira Bergarako udal euskaltegira hiru orduko euskara eskolak jasotzera. "Senarrak eta seme-alabek euskaraz egiten dute. Lagunek ere bai. Haurrak handitu dira eta orain denbora libre gehiago daukadanez euskara ikastea erabaki dut", azaltzen du Isak.

MOTIBAZIO DESBERDINAK

Lau pertsona topatu ditugu ikastaroko lehen egunean eta bakoitzak bere arrazoiak ditu euskara ikasteko. Abdelkrimek, esaterako, lau urte daramatza Osintxun. "Duela sei hilabete etorri dira emaztea eta seme-alabak. Neskatoak dagoeneko euskaraz aritzen dira euren artean. Oso ondo integratu dira. Ez ulertzeak amorru handia ematen dit. Gainera, ez emazteak ez seme-alabek ez dute hemendik joan nahi. Euskara ikastea beste erremediorik ez dut", adierazi digu irribarrez. Ikastaro bat egiten ari da eta materiala euskaraz dago. "Beti itzulpena eskatzen! Aspertu naiz. Ikasi egin behar dut!".

Dioumari euskaldunak asko gustatzen zaizkio. "Jende atsegina da, irekia. Senegalgo jendea bezala. Hiru urte eman ditut herriz herri gauzak saltzen eta hitz batzuk ikasi ditut, baina gutxi. Euskara eta euskal kultura gehiago ezagutu nahi ditut".

Agurtzen eta euren burua aurkezten ikasi zuten, besteak beste, lehen eskolan

30 orduko ikastaroa gustatuz gero, motibazioa izango dute euskara ikasten jarraitzeko

Greg irlandarra iritzi berekoa da. Hamar urte daramatza Euskal Herrian eta bi aste Antzuolan. Irakasle lanak utzi dituenez ikasteko energia berriarekin dagoela aitortu digu.

LEHEN HITZAK EUSKARAZ

Udaleko Euskara zerbitzuak antolatutako ikastaroak arrakasta handia izan du lehenengo deialdi honetan. HABEk prestatutako AISA materialean oinarritutako "harrera ikastaroa" izango da. Lehen eskolan euskal izendegia, *izan* aditza eta euren burua aurkezten ikasi zuten. 30 orduko ikastaroa gustatuz gero jarraitzeko aukera izango dute.

• ZERGATIK IKASI NAHI DUZU EUSKARA?

ISABEL | CORUÑA

"Duela 24 urte etorri nintzen eta lotsagarria iruditzen zait oraindik euskaraz ez jakitea. Lagun taldean bakarra naiz. Orain denbora dut eta ikasi egin nahi dut".

GREG | DUBLIN

"Irakaslea nintzen. Orain denbora nahikoa daukat eta euskara ikasi nahi dut. Euskal kultura interesgarria iruditzen zait eta errespetua zor zaio".



DIOUMA | SENEGAL

"Jendea atsegina da hemen. Frantsesa, ingelesa eta errusiera hitz egiten ditut. Orain euskara ikasi nahi dut. Komunikatzeko eta euskal kultura hobeto ezagutzeko".

ABDELKRIM | MAROKO

"Alaba txikiek euskaraz egiten dute euren artean. Ez dut tutik ulertzen! Lanerako ere ondo etorriko zait. Ikastaro bat egiten ari naiz eta materiala euskaraz dago".

LARRAITZ MADINABEITIA | IRAKASLEA

"Harrera ikastaroa izango da hau, euskal kulturara eta hizkuntzara hurbiltzeko lehen urratsa. Euren burua aurkezten ikasiko dute. Agurrak, zenbakiak..."

ETORKINENDAKO EUSKARA IKASTAROA DOMEKETAN

JULEN AREXOLALEIBA | MU-KO HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLEA

"Atseginak izan behar dugu erakarri nahi baditugu"

Larraitz Zeberio

Julenek gertutik ezagutzen ditu etorkinak euskalduntzeko Euskal Herrian abian jarritako hainbat proiektu.

Euskaldunok badugu laguntzerik etorkinak euskalduntzeko prozesu honetan?

Lehenengo eta behin pertsona moduan atseginak izan behar dugu. Eurengan interesa piztu nahi badugu, behintzat. Hau Atxagaren ideia bat da. Aurreiritziekin eta beldurrekin ez dugu jende hori erakarriko. Enpatikoki ikusi behar dugu egoera. Zer egingo genuke guk lan bila atzerrira joango bagina? Gaelikoa ikasiko genuke ingelesa baino lehen? Nik sarritan esaten dut: *lehenengo oilo zopia eta gero filosofia*. Hizkuntz komunitate moduan eskubide batzuk ditugu, noski, baina etorkinak ez dira euskara ikastera animatuko baldin eta erdaldunek eskaintzen ez dieten zerbait ematen ez badiegu. Harreman pertsonalen ondorioz sortutako ikasgura izaten da.

Zein motibazio izaten dute euskara ikastea erabakitzen duten etorkinek?

Hiru dira nagusiki. Seme-alabek euskara ikasi dute eskolan eta horrek adoretu ditu. Lagun euskaldunak dituzte, nolabait hizkuntza ikastera animatu dituztenak; edo euren hizkuntzarekiko autoestimu handia dute eta bertako hizkuntza, euskara, ikasteari garrantzia ematen diote.

Bergarako egitasmoa zer iruditzen zaizu?

> **"Eredugarria da ikasleen beharretara moldatutako egitasmo hau"**

> **"Lehen ikastaroaren ondotik etorkinak gainerako taldeetan integratzea behar luke helburua"**

Oso polita. Ikasle eta irakasle bat prest dira domeka goizetan euskara lantzeko. Ikasleen beharretara moldatzen saiatu dira antolatzaileak. Eredugarria benetan. Egitasmo honetan, Euskal Herri osoan garatu diren beste hainbestetan bezala, etorkinak talde itxi batean sartu dituzte ordea. Nik uste dut oso garrantzitsua dela harrera ikastaro honen ostean ikasle hauek gainerako ikasle taldeetan integratzea. Etengabe aparteko taldeetan ikastea ez da ona.

Talde hauek jarraipenik izaten dute?

Gogoratu behar dut asko direla euskara ikasten hasi eta eskolak bertan behera uzten dituzten ikasleak. Euskaltegien porrota, zentzu honetan handia da bertako jendearekin ere. Zergatik izango da ezberdina etorkinekin? Ikasle hauek, gainera, zailtasun gehiago dituzte. Askok ez daki sei hilabete barru non egongo den.

ARTXIBOA

Julen Arexolaleibak gertutik ezagutzen ditu abian jarritako hainbat proiektu.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
Posta-e: azabarte@goiena.com
Tel.: 943 76 92 70

LAGUN ELKARTEA | EKINTZAK EGITEKO ETA ELKARTZEKO AUKERA IZATEA ESKAINTZEN DU. ZAPATUAN BIGARREN BATZARRA EGINGO DUTE BERGARAN

Turandot lagun elkartea: helduentzako aisialdi talde berria

Kultura eta gizarte elkarte bezala aritzen da Turandot 2003tik. Joan zen zapatuan Bergaran aurkeztu zuten elkartea, hemen ere lagunartea handitu nahi dutelako

MARIJO DEOGRACIAS

Joan zen zapatuan 49 urtetik gorakoen taldetxoa elkartu zen Bergaran. Hurrengorako gazteagoak deitu dituzte.

Marijo Deogracias

Puccinik jakin beharko luke lagunak batzeko elkarte batek bere opera baten izena hartu duela: Turandot. Zapatuan aurkeztu zuten Bergarako kultura etxean Turandot elkartea, hango lau kidek. Jendea lagunarteko girora batzeko asmoz sortu zuten 2003an eta harrezkero 130 bat bazkide ditu. "Bestelako pertsonak, beste herri batzuk ezagutu nahi dituzten eta ondo pasatzeko gogoa daukaten jendeari zuzendutako elkartea da gurea", adierazi zuen Juan Etcheberria elkarteko lehendakariak.

Orain arte Donostialdean aritu dira lagun taldeak. "Han egin izan ditugu gure batzar eta hitzorduak. Baina aspaldi honetan Debarroko jende askoren deiak jaso ditugu eta pentsatu genuen bideragarria izan zitekeela hemen ere beste hitzordu leku bat sortzea. Badakigu Donostiaraino joatea ez dela batere erosoa bizilekuaren arabera, hortaz, hemengo jendea antolatuko balitz hemen ere lagunarte polita eratu ahal izango litzateke eta lantzean behin hango eta hemengo jendearekin hitzorduak egin", dio elkarteko Milak. Bera tolosarra da eta gustura baino gusturago ari dela aitortu digu. "Hasieran kosta egiten da pausoa ematea, baina dagoeneko hasierako beldur haiek uxatu ditut. Aitortu behar dut ondo baino hobeto pasatzen dugula egiten ditugun ekintza guztietan".

LAGUN BERRIAK NAHI DUENARENTZAKO

Herrian aukerarik ez izateagatik, edo betiko lagun taldearekin batzeko aukerarik ez izateagatik edo beste barik lagun berriak ezagutu nahi izateagatik... Horiek izan ziren zapatuko batzarrean entzun genituen arrazoiak Turandot elkartera batzeko. "Ekintzetan parte hartzeko ez dago zertan bazkide egin. Guk lehenengo ekintza baten parte hartzera animatzen ditugu etorri berriak eta, horren arabera, aukeratu dezatela jarraitu nahi duten edo bazkide egin nahi duten", dio presidenteak.

Bazkide egitea 60 euro da, baina bazkide egin barik ere jaso daiteke elkartearen ekintzen gaineko informazioa ekintzetan izena emateko.

Datorren zapatuan, maiatzaren 7an, bigarren batzar bat deitu du elkarteak Bergarako kultura etxean, eguerdiko 12etan.

Bigarren batzar hori 30 eta 49 urte bitarteko jendeari zuzenduta dago.

Intereseko datuak

- **NORI ZUZENDUTA**
  Ezkongabe, banandu, dibortziatu, alargun edo bestelako edozein egoeratan dagoen edonori. 30-49 eta 50-65 urteko taldeetan.
- **ZERTARAKO**
  Afariak, irteerak, oporraldiak, egonaldiak eta bestelakoak.
- **HARREMANETARAKO**
  696 91 35 66 edo *tt@turandot.biz*

• ZER DA TURANDOT ELKARTEA ZUENDAKO?

ANA |
ARRASATE

Niretzako jendea ezagutzeko aukera bat izan da. Jende asko dago hainbat ekintza egiteko aukerarik ez duena bere inguruko lagun taldearekin, ordutegiagatik edo dena delakoagatik, eta honela beste lagun talde bat daukat.

VIRGINIA |
BERGARA

Elkarteko bazkide naiz. Batez ere nire lagun taldea handitu nahi nuelako hasi nintzen elkartean; geroz eta lagun gehiago, orduan eta ekintza gehiago egiteko aukera daukazu eta horixe lortu dut Turandot elkarteari esker.

MARI CARMEN |
BERGARA

Orain dela hilabete ezagutu nuen elkartea eta bazkide egin berri naiz. Jendearekin erlazionatzea gustatzen zait eta jende eta leku berriak ezagutzea. Elkarteak horretarako aukera eman dit. Dagoeneko bi irteera egin ditut.

MARISOL |
ARRASATE

Bazkide egin berri naiz. 2003an ezagutu nuen elkartea lehenengoz eta harrezkero pare bat ekintzatan parte hartu izan dut. Aldatzeko modu bat da. Oso ondo pasatzen dugu; koadrilan beti animatzen zara gauza gehiago egitera.

JUAN |
ELKARTEKO PRESIDENTEA

Gure elkartearen helburu bakarra ondo pasatzea eta lagunak egitea da. Ez dago bestelako asmorik, ez eta konpromisorik. Azken batean elkarteak pare bat ekintza bakarrik antolatzen ditu; beste guztiak jendeak proposatzen ditu.

BEGOÑA |
ELKARTEKO KIDEA

Lagunek zer nolako elkartea den galdetzen didatenean, helduentzako aisialdi talde bat legez aritzen garela esaten diet. Gure asmoa denbora libre horretaz gozatzea da, eta ahal dela jende berria ezagutzen ahal den guztietan.

Ehunka eskoriatzar igo ziren Aitzorrotzera atzo

Bero egin zuen arren, Aitzorrotz egunarekin bete egin zuten eskoriatzarrek atzo goizean goizetik

M.D.

ARANTXA UNZUETA

Aitzorrotzen sukalde lanetan ere aritu ziren batzuk atzo goizean .

Aitzorrotzeko erromeria tradizio handiko jaia da Eskoriatzan, eta atzo ere, zubia izan arren, herritar asko animatu zen goizean goiz egindako hitzordura. 09:30ean herriko plazatik atera ziren Aitzorrotzera eta meza ordurako igo ziren gehien-gehienak. Atzo, gainera, meza Genaro Lekuona Arrasateko parroko eta artzapezak egin zuen Aitzorrotzen 11:30ean.

BAZKARIRIK EZ BAINA TABERNA BAI

Aitzorrotzera igoera goizeko 9etan iragarri zuen txistularien dianak eta ordurako Udalak jarritako autoak pare bat buelta emanak zituen Aitzorrotzeko taberna gertu izateko lehenengo erromesak igo orduko. Atzokoa, gainera, egun beroa izan zenez, tabernan lan asko izan zuten. Bazkaria ez zen egin, ez behintzat antolatzaileek deituta, aurreko urtean izandako erantzun eskasak eraginda. Hala ere, asko izan ziren han goian geratzea erabaki zutenak bazkalostera arte, erromerian egiteko beherako bidea.

Xafre eta Zaharra trikitilariek alaitu zuten goiza eta arratsaldeko 5etan beherako bidean ziren. 18:30ean berbenari ekin zion Kaixo taldeak eta hori baino lehen herritarrek prestatutako patata tortillak dastatzeko aukera izan zuen jendeak.

AITZORROTXI LAGUNTZEKO

Atzo batutako dirua Aitzorrotx GKEri laguntzeko batu zuten, buruko gaixotasunak dituzten pertsonei laguntzeko.

Eguraldi ona lagun, jai dotoreak egin dituzte Bergaran eta Arrasaten

Arrasateko San Andres auzoan gaur arte iraungo dute auzoko jaiek. Gaueko 9etan etxafuegoak jaurtiko dituzte

M.D.

Prudentzio deunaren omenezko jaiak ospatu dituzte asteburuan Bergarako Elorregi auzokoek. Atzo, berriz, Bergarako Labegaraieta auzoan auzoko jai eguna egin zuten, eta Arrasateko San Andres auzoan gaur amaituko dituzte jaiak. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte hiru auzoetan, eta eguraldia lagun, jende asko animatu da jaian parte hartzera.

Gaur, astelehena, Arrasaten umeentzako jolasak, Disko festa eta Samasiku fanfarea egongo dira.

AINTZANE AGIRRE

SAN ANDRES. Arrasateko auzo honetan gaur arte iraungo dute jaiek eta gaur ere Bedoñabe herri eskolako patioan haur parkea eta puzgarriak egongo dira goizez 11:30etik 14:30era, eta arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara.

AINTZANE AGIRRE

ELORREGI. Itzelezko giroan ospatu dituzte jaiak Bergaran. Zapatuko auzo bazkarian, Alkartasuna elkartean, 63 lagunek bost emakumek egindako bakailaoa jan, Peñagarikano eta Amurizaren bertsoak entzun eta Uberako Aritz eta Enaitzekin dantza egin zuten.

AINTZANE AGIRRE

LABEGARAIETA. Bergarako auzo horretan ere jaiak ospatu zituzten atzo. Umeak izan zituzten ekintzarik gehienak eta arratsaldeko txokolatadan ere bi txanda egin behar izan zituzten, berehala amaitu zen eta. Auzo afarirako 50 bat auzotar animatu ziren.

Politikariak hezkuntzaren garrantziaz ohar daitezen

Eskoriatzako eta Arrasateko ikasleek hezkuntzaren garrantzia azpimarratu diete politikoei

M.D.

AMAGOIA LASAGABASTER

Luis Ezeiza ikastetxeko ikasleak Juana Bengoari azalpenak ematen.

Politikariak eskolara itzultzea kanpaina Debagoienera ekarri zuen egubakoitzean Alboan Gobernuz Kanpoko Erakundeak. Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6 eta 7 urteko neskato-mutikoek eta Arrasateko Ferixalekuko 1. eta 2. mailako gela guztietako ikasleek, lezioa eman zieten bisitan izan zituzten politikariei.

Eskoritzan Errenteriako Juana Bengoetxea zinegotzia izan zuten bisitan. Umeek 3. Munduaren egoeraz zekitena erakutsi zioten Bengoetxeari, astebetez, jolas baten bitartez, hango umeek bizi duten errealitatea lantzen ibili ondoren.

Ekintzaren asmoa zen eskolara joaterik ez daukaten munduko neskato-mutikoekiko konpromisoa eskatzea politikoei eta hezkuntzaren garrantziaz ohartaraztea.

Arrasateko Ferixalekuan Eusko Alkartasunako Nekane Alzelai izan zen. Ikasleek eurek idatzitako gutuna irakurri zioten, munduko umeek hezkuntzan dituzten arazoetaz ohartarazteko eta politikoek hartu bai, baina betetzen ez dituzten konpromisoak hartu ditzatela eskatzeko.

Hezkuntza Guztiontzat kanpainak, gobernu eta nazioarteko komunitateak hezkuntzaren arloan 2000an hartutako konpromisoak betetzea eskatzen du.

ESKOLA TXIKIEN JAIA | ESKOLA TXIKIEN JAI HANDIA ELGETAN IZANGO DA AURTEN

Elgetako eskolak herritarren aurrean aurkeztu zuen Eskola Txikien Jaia

Elgetan egingo dute aurten Eskola Txikien jaia, ekainaren 12an. Jaia nolakoa izango den erakutsi nahi izan zieten herritarrei eskolakoek; baita giroa berotzen joan ere

Monika Belastegi

Arratsalde on, txiki ta handi. Zer moduz doa eguna? Esku bete lan zabiltzatela halaxe daukat entzuna. Eskola batek erakarri du guztien elkartasuna. Horrelakotan erakusten da herrien handitasuna. Bertso honekin eman zion hasiera Ainhoa Agirreazaldegik ekainaren 12an, Elgetan, egingo duten Eskola Txikien Jaia herritarren aurrean aurkezteko zapatuan Espaloian egindako festari.

Herriko ia ume guztiak batu ziren eta haiekin batera gurasoak eta irakasleak. Izan ere, guztiek elkarlanean eta buru-belarri dihardute Eskola Txikien Jaia prestatzen. Zapatuan egindako festa aperitiboa izan zen, ekainaren 12rako gosea egiten joateko. Egun horretan, inoiz baino ozenago aldarrikatuko dute eskola txikiek bizirik badiraute, herri txikiek ere bizirik iraungo dutela. Eta aldarrikapena ahalik eta ozenena izateko, Gipuzkoan dauden 28 eskola txikiak batuko dira Elgetan.

GURASOEKIN BARRE

Zapatuan ez zuten makal pasatu ume zein nagusiek. Kaxkar eta Koxkor pailazoekin gustura egin zuten barre umeek, batez ere, gurasoak eszenatokira igo eta belakiaz ipurdia garbiarazi zietenean. Jai handirako prestatu duten abestia ere kantatu zuten.

Bestelako praktikotasuna ere izan zuen jaiak. Ekainaren 12an eguraldi txarra egingo balu, Espaloian egingo lituzkete ekitaldietako batzuk. Hala, zapatukoak neurria hartzen joateko ere balio izan zien antolatzaileei.

Agirreazaldegi bertsolariak esana: *Guztia ondo atera dadin nere desio garbia, egun handi bat izan dadila ekainaren 12a*.

AINTZANE AGIRRE

Matxura taldearekin eta Izas kantariarekin batera abestu zuten eskolako umeek jairako egin duten kantua.

• ESKOLAKO HAURRAK EKAINAREN 12A IRISTEKO IRRIKAN DAUDE

AITOR, AITOR ETA ETOR | ELGETA

Abestia asko gustatzen zaiela esan zigun hirukote honek. Dena den, "oraindik ez dakigu osorik, baina ikasiko dugu" esan ziguten. Pozik daude euren herrian egingo delako Eskola Txikien jaia, eta berezi-ki egun horretan egongo diren jolasen zain daude.

JULEN, MIKEL, LEIRE ETA NIKOL | ELGETA

Launa urte dute eta haurreskolan dihardute. Txikiak diren arren, garbi zekiten zein jairengatik zeuden Espaloian: "Eskola txikien jaia" esan ziguten. Kantua abesteko ere eskatu genien: "Badakigu" esan zuten, "baina zatitxoak".

Eskola Txikien Jaiak kanta ere badu

Txikiaren kume, txikiaren frutu / txikian ikasi, maitatu, jolastu / txikiak handi egiteko; elkar ezagutu / elkar aberastu.

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik!

Txikian guztiok elkarrekin / bizia da gure txikitasuna / horrela egiten baitugu nortasuna geure / geure nortasuna.

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik!

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik! Herrigintza sustrai, hizkuntza arbola / batuz kultura zahar ta berria / modu horretan indartzen du herriak eskola / eskolak herria.

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik!

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik!

Hitzak: Ainhoa Agirreazaldegi
Musika eta abestu: Matxura, Izas eta eskolako umeak

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA
Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

Ibarreko sei bikote Munduko Futbolin Kopara joango dira

Asteburuan jokatutako txapelketetan erabaki dira sei bikoteak. Munduko Kopa maiatzaren 5etik 8ra jokatuko da, Frantzian

M.B.

Futbolin txapelketa ugari egon da asteburuan geurean. Bergarako Lam dibertimenduzko jokoen enpresak antolatu ditu txapelketok eta helburua zen maiatzaren 5etik 8ra bitartean Frantziako Eaubonne hirian (Paristik kilometro gutxira) jokatuko den Munduko Koparako sailkatzea.

Egubakoitzetik domekara bitartean bost herritako tabernetan sei txapelketa jokatu dira eta hor erabaki dituzte (sailkatuak ondoko taulan) Munduko Kopara joango diren bikoteak. Taberna bakoitzeko gehienez 16 bikotek parte hartu ahal izan dute eta taberna gehienetan kopuru horretara iritsi direla azaldu digu Carlos Lasa Lam enpresako nagusietako batek. Bestalde, gehitu du, Debagoienaz gain Gipuzkoako beste herri batzuetan eta Gasteizen ere jokatu dira txapelketok: "Guztira 18 bikote joango dira Frantziara eta horretarako 68 lagunendako autobusa daukagu. Sailkatu diren bikoteekin batera, antolakuntzako hamar lagun ere joango gara, eta bikote bakoitzak aukera du lagun bat gonbidatzeko ere" azaldu digu Lasak.

Munduko Kopan 30.000 euro banatuko dituzte saritan.

CARLOS LASA

Segura eta Zigor eskoriatzarrak garaipena ospatu zuten.

Sailkatu direnak

- **POL-POL TABERNA (BERGARA)**
  Gorka eta Aritz (Bergara)
- **OILAGORRA TABERNA (BERGARA)**
  Alex eta laguna (Bergara)
- **BIONA TABERNA (ARRASATE)**
  Ander eta Arri (Arrasate)
- **NAIRA TABERNA (ESKORIATZA)**
  Zigor eta Segura (Eskoriatza)
- **SURPE TABERNA (ANTZUOLA)**
  Gorka eta Sanchez (Antzuola)
- **ONGI TABERNA (OÑATI)**
  Txiki eta Unai (Bergara)

Eguaztenean bilkurak deitu dituzte azkeneko bi lan istripuak salatzeko

Martitzenean oina zauritu zuen langile batek Oñatin; egubakoitzean gazte bat hil egin zen Bergaran

M.B.

ELA, LAB eta ESK sindikatuek elkarretaratzeak deitu dituzte etziko, eguaztena. Aurreko astean Debagoienean izandako bi lan istripuak salatzea dute helburu elkarretaratzeok.

Lehenengoa Bergaran egingo dute, Algodonera lantegia erauzteko lanetan hildako gaztearen heriotza salatzeko. 11:00etan izango da, Algodonera lantegia zenaren aurrean. Gogoratu, egubakoitz goizean, hondeatzeko makina gainera erorita bizia galdu zuela 25 urteko A.Z. goizuetarrak. Elkarretaratze hori ELA, LAB eta ESK sindikatuek deitu dute.

Bigarren elkarretaratzea Oñatin egingo dute, San Pedro auzoko bidegurutzean (Etxeaundi jatetxearen parean), 12:30ean. Han ere lan istripua salatuko dute ELA eta LAB sindikatuek. Martitzenean, Txintxurreta lantegian izandako istripua da salatu nahi dutena. Gazte batek larri zauritu zuen oina metalezko bi zilindro handi erori zitzaizkionean.

Bestalde, bi istripuak Lan Osasunaren Nazioarteko Egunaren astean gertatu dira. Egun horren harira ere elkarretaratzeak egin zituzten hainbat lantegiren aurrealdean.

• ZAPATUAN OMENALDIA EGIN ZITZAIEN ARRASATEKO 19 PRESOEI

ESTATUAK GAUTXORI 5 URTEZ BAHITURIK DAUKALA SALATU ZITEN

Zapatuan 300 bat lagunek hartu zuten parte Arrasaten *Gautxori 20 urte kartzelan. Estatus politikoa orain* lelopeko manifestazioan. Ondotik, omenaldia egin zitzaien Arrasateko presoei zein euren senideei. Krabelin txuri bana eta aurreskua eskaini zitzaien. Gautxorik protagonismo berezia izan zuen. Iloba batek Jaengo espetxetik jasotako gutun bat irakurri zuen eta Mariak, 80 urteko amak, makila jaso zuen txalo artean. Duela 5 urte bete zituen Gautxorik kondenaren 3/4ak.

LARRAITZ ZEBERIO

Eider Montalban eta Ane Moñux 'Gomendatzen dizut' lehiaketako irabazle

Arrasateko eta Bergarako gazte bulegoek antolatzen duten lehiaketan bisitan joateko 28 lekuren gomendioak jaso dituzte

M.B.

Bergarako eta Arrasateko Gazte Informazio bulegoek erabaki dituzte Gomendatzen dizut sariketako irabazleak. Arrasaten, Eider Montalbanek (22 urte) jaso du saria Bretainia Aste Santuan bisitatzeko aurkeztu duen gomendioarengatik. Bergaran, berriz, Ana Moñuxek (17 urte) irabazi du lehiaketa Plentziako Aterpetxea gomendatzeagatik.

28 GOMENDIO JASO DITUZTE

Esandako bulegoetan 28 gomendio jaso dituzte; 13 Arrasaten eta 15 Bergaran. Sexuari dagokionez, guztira 15 neskak eta 6 mutilek hartu dute parte eta adina, 4 eta 46 urte bitartekoa izan da. Bestalde, gomendio motari dagokionez, gehienak ikusteko lekuen eta eraikinen gainekoak izan dira.

Bisitatutako herrialdeei dagokienez, berriz, denetarik egon da: Euskal Herrian, Urbasa, Plentzia, Erratzu eta Ibarrangelu, esaterako. Europan, Bretainia eta Turkia, besteak beste, eta munduan, Hego Korea, Txina eta Kongo, beste batzuen artean.

Ibilbide anitzak

Pertsona ekintzaile eta sortzaileak, ingurua hobetu eta eraldatzeko gaitasuna dutenak; eta ibilbide anitzak:

- BATXILERGO ELEANITZA berria!
- ARTE BATXILERGOA
- BATXILERGO FORMATIBOA
- ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA BATXILERGOA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA

Matrikulazio epea zabalik
apirilak 25etik maiatzaren 6ra arte.

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Orotariko Euskal Hiztegiaren Dag-Erd berba hasierak kaleratzeko zegoela hasi zen lanean Ane Loidi aretxabaletarra hiztegi hori egiten aritu den lan taldearekin. Hamar aleren ostean, amaitu du Euskaltzaindiak Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean egindako hiztegia. 125.987 sarrera ditu eta guztira, 14.028 orrialde osatu dituzte. "Ez da umeen eskolako lanak egiteko edo euskaltegirako hiztegia, baina bitxikeriak kontsultatzeko modukoa bada" aitortu digu Anek.

ANE LOIDI | EUSKALTZAINDIAK ATERA DUEN OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAN ARITU DA

"Euskal literaturako tradizioa jasotzen duen hiztegia da"

M.D.

Ane Loidi, Orotarikoaren azkeneko tomoa eskutan duela. Etxekoentzat ekarri zuen alea.

Marijo Deogracias

Zer da Orotariko Euskal Hiztegia?

Euskara-gaztelania ordainak ematen ditu, baina hortik aurrera euskal literaturako tradizioa jasotzen duen hiztegia da, literatura zentzurik zabalenean; XX. mendera arteko euskaraz idatzitako guztia eta XX. mendeko asko dago. Hiztegiaren helburua hitzak definitzea da, baina erabileraren adibideak emanaz, esamoldeak bereiztuta... Berba bakoitzaren historia jasotzen da: historian izan dituen adierak, erabilerak, ze egiturarekin erabiltzen diren...

Berba baten esangura bakarrik begiratzeko, hortaz, ez genuke Orotariko Euskal Hiztegia hartuko?

Esangura baino gehiago dago, baina hiztegiaren erabiltzailearen arabera, baliteke bilaketa horretan galtzea. Edozeinentzako duen praktikoena izan daiteke hitz bakoitzaren amaiera aldera duen esamolde edo erabileraren adibide zerrenda. Hitz larriekin jasota datoz berba konposatuekin egindako esaldiak... Horren aurretik datorrena, batez ere berba gramatikaletan, azalpen oso luzeak dira, sarrera oso luzeak: berba hori erabili duten autoreen izenak, zein euskalkitan erabili izan den, zein garaitan erabili den...

Zeren pareko da?

Ez da ezeren pareko euskaraz. Azkueren hiztegia berritzeko, eguneratzeko asmoz sortu zen, baina corpusa osatu zenean (testuak pikatu zirenean) aldatu egin zen eta gaurko Orotarikoa egiten hasi ziren.

Norentzako hiztegia da?

Hizkuntzalari, filologo, itzultzaile... Oso espezifikoa da, ez da edozeinentzako. Agian, letra larriz jaso diren esamoldeak, kuriositatez kontsultatu daitezke, baina ez da egunero etxean kontsultatzeko hiztegia; ez da eskola umeentzako eskolako lanak egiteko; ez eta euskaltegiko ikasle batentzako ere.

Euskaltzaindiaren arauak egiteko, arautzeko, balioko du?

Balio du eta erabili izan da. Horregatik esan izaten da Euskaltzaindiak gauza denak aldatzen dituela. Kontua da Orotarikoaren corpusa aztertu ahala, hedadurarik handiena duten berbak aukeratzen direla eta Euskaltzaindiak horixe erabili du corpusa sortu zenetik hona.

Hizkika banatu ei duzue lana. Zuri zein hizkirekin hasten diren berbak osatzea tokatu zaizu?

Denetik tokatu zait. Esaterako, batek *z* letra hartzen badu, eta oso luzea badin bada, banatu egiten dugu eta batek, adibidez, *zak*raino hartzen du eta besteak horren ondorengoak. Orain artean argitaratutako eta argitaratu gabeko hiztegi guztiak begiratu behar izan ditugu lana egiteko.

Letrarik gorrotatzera iritsi zara?

(Barreak). Batzuk, egia esan, oso luzeak egin zaizkit, *zein* eta antzeko beste batzuk.

Testu zaharretan bila aritu zarete, berba bakoitzaren adierak azaltzeko orduan, historian izan duen erabilerarik zaharrenaren bila, hain zuzen ere

Lehenengo autoreen testuak osorik jaso dira corpusean eta XIX-XX. mendeetako corpus handia daukagu. Ez gara adibideen bila beste barik joan; corpusa jarraitu dugu lana osatzeko. Askotan idatzitako guztia ondo dagoela uste izaten dugu eta batez ere testu berriekin gauza arraro asko agertu izan dira; joerak aldatu egiten dira.

Eta erabilera okerrak ere jaso dituzue?

Ez dakit okerrak esan daitekeen; behin bakarrik erabili direnak ere jaso ditugu.

Zein berbak edo erabilerak harritu zaitu gehien?

Asko izan dira. Normalean berbari zure inguruan ematen zaion erabilera ezagutzen duzu bakarrik eta, lan honi esker, beste erabilera asko ezagutu ditut. Desmitifikatzeko balio izan dit; esan nahi dut, batzutan harek edo besteak erabili izanagatik "gaizki" dagoela esan izan dugu eta ez dauka horrela izan beharrik; adibidez, maite berbarekin esaten da "oso maite zaitut" esan behar dela, baina testuek erakusten dute "asko maite zaitut" gehiago esan izan dela. Horrelako gauza asko desmitifikatzeko balio du hiztegi honek.

Zenbat berba galdu ditugu zuek hiztegian jaso dituzuenetatik?

Asko, baina beste batzutan XVII. mendean asko erabiltzen zen berba bat, ia desagertuta egon dena, bat-batean berriz ere agertzea ere tokatu zaigu (hiztegigileren batek nonbaiten jaso izanagatik).

Aretxabaletako berbarik jaso duzu?

Bai asko. Gainera Juan Martin Elexpururen hiztegia kontsultatu izan dugu (eta Toribio Etxebarria, Kandido Eizagirre...). Debagoieneko berba asko daude eta hiztegigileen artean ere agertzen da Debagoiena.

Orotarikoa amaituta, zer dago egiteko?

Gauza asko, baina gu geu esaterako Orotarikoaren lehenengo bost tomoak berrikusten hasi gara (1987an hasi zen A letrarekin).

Hiztegia sarean jartzeko asmorik?

Hori da hurrengo helburua. Diru iturriak zabaltzen diren neurrian egingo da hori. Gainera, hori da euskaragarriago egoteko eta kontsultak errazteko modua.

"Berba bakoitzaren historia jasotzen du: izan duen erabilera, testuingurua..."

"Hizkuntzalari, filologo eta itzultzaileentzako hiztegia da. Oso espezifikoa da"

"Behin bakarrik erabili diren berbak ere jaso ditugu Orotariko Euskal Hiztegian"

"Batzuetan berba bat harek edo besteak erabili izanagatik gaizki dagoela esan da"

Albiste izango da

BERGARA | ALVARO ARAGON IRAKASLEAK EGINGO DU

Gipuzkoako mendien gainean hitzaldia egingo dute bihar

Gipuzkoako mendiak aro berrian (XVI-XVIII. mendeetan): basogintza eta abeltzaintza izeneko hitzaldia egingo du Alvaro aragon Ruano historia irakasleak bihar, martitzena, 19:30ean, Miguel Altuna institutuko areto nagusian. Hitzaldi horren bidez, XVI. eta XVIII. mendeen artean Gipuzkoako mendietako basoen zein larreen bilakaera azalduko du hizlariak. Bestalde, baserri giroa iraunkorra dela esan ohi izan da, eta ez duela ia aldaketarik izan nekazaritza eta abeltzaintza sortu zirenetik, Neolitiko garaitik. Uste horiek ere argituko ditu Aragonek.

ARRASATE | EKIN EMAKUME ELKARTEAK ANTOLATU DITU

Hiru tailer antolatu dituzte emakumearen osasunaren harira

Maiatzaren 28an Emakumearen Osasunaren Nazioarteko Eguna dela eta, Ekin emakume taldeak osasunarekin lotutako hiru tailer antolatu ditu: autoestimua eta autolaguntza; dieten fidagarritasuna eta yoga, hain justu ere.

Autoestimu eta autolaguntza tailerra maiatzaren 23an eta 25ean izango da, 18:00etatik 20:00etara eta Arantzazu Loidik egingo du. Dieten gaineko tailerra maiatzaren 11n izango da, 18:00etatik 19:30era eta Leire Ezkurrak egingo du. Yoga tailerra, berriz, maiatzaren 7an, 14an, 21ean eta 28an izango da, 11:00etatik 13:00etara eta Encarna Menezzek egingo du. Hirurak elkartearen egoitzan izango dira. Izenematea zabalik dago.

ARRASATE | 12:30EAN IZANGO DA, SAN PEDRO AUZOAN

Txus Congil hezitzaileak nerabeez eta drogez jardungo du etzi

Txus Congil hezitzaileak zabalduko ditu Udaleko Drogamenpekotasun sailak gurasoendako antolatu dituen jardunaldiak. Etzi izango da hori eta *Familia, heziketa estiloak eta autoritatea* gaia izango du hizpide, 18:30ean, Monterron jauregian.

Eguenean, berriz, Deustoko Drogamenpekotasun Institutuko (Deustuko Unibertsitatea) Maria Teresa Laespadak beste hitzaldi bat egingo du aurrekoaren leku eta ordu berean. Landuko duen gaia da: *Droga kontsumoa gaur egungo gizartean*.

Jardunaldiak maiatzaren 12an bukatuko dira *Drogak, plazerrak eta arriskuak* hitzaldiarekin. Ai-Laket taldeko Txabi Ruizek egingo du azkeneko hitzaldi hori. Monterron jauregian izango da hori ere, 18:30ean.

ANTZUOLA | 1.700 LEKUREN IZENAK JASOTZEN DITU

Eguenean aurkeztuko dute leku izenekin egindako toponimia lana

Antzuola Ikerketa Bekaren bidez Kristina Pavo antzuolarrak herriko leku izenekin egindako toponimia lana aurkeztuko dute eguenean, 19:00etan, Olaran etxean.

Antzuolako baserrien izenak, txabolenak, ermitenak, lursailenak, mendienak, auzoenak, errekenak, iturrienak eta beste hainbat jaso ditu Pavok lanean eta liburua osatu. Mapaz lagunduta dago liburua izen bakoitza kokatzeko. Horretarako Iñigo Ramirez de Okarizek egindako mapa erabili dute eta hura osatu. Guztira 1.700 lekuren izenak jasotzen ditu liburuak.

BERGARA | MAIATZAREN 13RA BITARTEAN

Zabaldu dute VIII. Frontenis txapelketan izena emateko epea

VIII. Frontenis txapelketarako dei egin du Udalak. Frontenisean egin nahi duten guztiei dago zabalik, beti ere bikoteka. Jokalari bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko; kirol zerbitzuetako abonatuek, berriz, 12. Partiduak Angiozarko pilotalekuan izango dira eta txapelketa puntuagarria izango da Debagoieneko txapelketa zirkuiturako.

Izenemate epea zabalik dago maiatzaren 13ra bitartean. Izena emateko zein informazio gehiagorako jo Udaleko Kirol zerbitzura, 943 77 91 67 telefonora deitu edo bidali mezua *kirolak@bergara.net* helbidera.

Hitzorduak

ERRETIRATUEN ELKARTEEK ZENBAIT IRTEERA ANTOLATU DITUZTE | Antzuola, Arrasate eta Oñatiko elkarteek egingo dituzte txangoak

Eguraldi ona hasi dela eta, zenbait erretiratu elkartek irteerak antolatu dituzte egunotarako.

Hala, Antzuolakoek Oñatin arratsalde pasa egingo dute eguenean, hilak 5; Herriko plazan batuko dira 15:30ean. Arrasaten, Abaroa etxeak Bizkaia aldera txangoa antolatu du, eta izena emateko egunak hilaren 5a, eguena, izango da, euren egoitzan. Laga, Mungia, Erandio eta Bilbo bisitatuko dituzte. Azkenik, Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkartekoak Garaiora joango dira maiatzaren 18an, eta izena emateko egunak astelehena eta eguaztena dira, 18:30-20:00 ordutegian.

ARETXABALETA |

• Lourdesera joateko izenematea zabalik dago
Gaixoen erromesaldia deitu dute maiatzerako. Parrokiak maiatzaren 21 eta 22rako antolatu du bidaia. Izenematea zabalik dago, sakristian.

ARRASATE |

• Arrasate Institutuan aurrematrikula egiteko epea
Batxilergoko aurre-matrikulazio epea zabalik dago maiatzaren 6ra bitartean, institutuko idazkaritzan.

• Umeen danborradan parte hartzeko izenematea
Umeen danborradan parte hartzeko izenemate epea zabalik dago egunero maiatzaren 7ra bitartean, SUDCen lokalean, Pablo Uranga kalean, 18:00-20:00. Lehenengo entsegua maiatzaren 7an egingo dute.

• 52ko kintoek ospakizuna egingo dute hilaren 21ean
Maiatzaren 21ean, zapatua, egingo dute aurtengo ospakizuna. Izena emateko, jo honako lagunengana: Paco Bonet, Ángel Domínguez, Julio Marañón edo Rafa Fernández.

• 1968an jaiotakoek kinto afaria antolatu dute
Maiatzaren 28an batera afalduko dute Sagarpe elkartean, 19:30ean. Izenematea zabalik dago Euskadiko Kutxan. 10 euro sartu behar dira.

BERGARA |

• Musika Eskolak izenemate epea zabaldu du
Euren bulegoan eman behar da izena, astegunetan, 15:30-19:30.

• Ipintza Institutuak aurrematrikulazio epea zabaldu du
Maiatzaren 6ra bitartean dago horretarako aukera.

• Erretiratuendako hitzaldia egingo dute bihar, martitzena
La vida en solitario hitzaldia egingo du Joseba Muñoz adituak bihar, martitzena, erretiratuen egoitzan, 17:00etan.

• Deban barrena baltsa-jaitsierarako izenematea
Mendekoste jaietarako, Deba ibaian barrena baltsa-jaitsiera antolatu du Bergarako Herri Mugimenduak. Izenematea zabalik dago tabernetan.

DEBAGOIENA |

• Alzheimer gaixoendako eta familiarendako oporrak
Gizartekintzak eta Afagi elkarteak Nojan (Kantabria) oporraldiak antolatu dituzte honako epeetan: ekainak 6-16, ekainak 20-30 edo irailak 12-22. Asmoa da gaixo horiei eta familiei atseden hartzeko aukera ematea. Argibideak, udaletan.

• Herri Urratsera joateko autobusak antolatu dituzte
Debagune elkarteak antolatu ditu, eta euskara elkarteetan dago zabalik izenematea maiatzaren 5era arte, 7 eurotan bazkideendako eta 10 eurotan gainerakoendako. Herri Urratsen laguntzaile lan egin nahi duenari prezio erdia egingo diote.

• Helduen Heziketa Ikastetxeetan izenematea
Ibarreko HHIetan izenemate epea zabalik dago aste osoan, Arrasaten (Ferrerias kalea), Bergaran (Barrenkalea 33) eta Oñatin (Zuazola institutuan).

ESKORIATZA |

• Patinaje ikastaroa antolatu dute, bi mailatan
Patinaje ikastaroak antolatu ditu udalak, hasiera eta sakontze mailetan. Izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 7ra bitartean. Kiroldegiko bazkideendako, 10 euro da; gainerakoendako, 13.

OÑATI |

• Umeen zeloen gaineko hitzaldia egingo dute
Haurren zeloak delako hitzaldia egingo du Eraberri taldeak eguenean, hilak 5, Elkar Heziren Santa Eskolastikako egoitzan, 19:00etan.

• Fatimara bidaia egingo dute maiatz erdialdean
Maiatzaren 17an joango dira. Hiru egun egingo dituzte han eta Portugalgo hainbat herri bisitatuko dituzte. Izenematea, Bidaurretan (aita Fermin Altube) edo Arantzazun (aita Jon Zubieta). 267 euro da.

Iritziak

Isilpekoak

943 76 92 71

goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Urez beteriko errepide arriskutsuak

Aurreko asteetan izan ditugun euriteek berriz ere agerian utzi dute Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepidearen egoera kaskarra. Horrela adierazi digu irakurle batek: "Mecatik Aretxabaletaraino bidean dauden zuloak urez beterik egon dira egunotan. Kontua da, bide bazterretan ur putzu izugarriak egin direla, eta horiek saihesteko auto askok bide erdirantz egiten dute tarte askotan. Honek, ordea, arrisku handia dauka, batez ere aurrez aurre autobusa, kamioia edo bestelakoren bat datorrenean. Gainera, errepidea bera nahiko labainkorra da eta euria egin duen egunetan igarri dugu hori".

• Pinuak atera bai, baina errepideak zaindu

Txistuak mendigoizale batek bidali dizkigunak ere. Oraingoan, Tellamendi eta Besaide arteko mendi bidearen egoeraz kexu da irakurlea. Antza denez, pinuak ateratzen aritu dira bide horren inguruan eta kamioiek erabat apurtu dute bidea. "Lurrezko bidea denez erabat lokaztuta dago bide inguru hori", irakurleak adierazi duenez, eta eskaria ere egin digu: "Pinuak ateratzea jabearen aukera izaten da. Nik ere banitu egingo nuke! Baina horretan ari direnak, mendi-zaintzan aritzen den Aldundiko departamentuak gutxieneko neurri batzuk betetzera behartu beharko lituzke. Dirua irabazteko asmoz eurenak diren pinuak kentzearen kontra ez daukat ezer, baina guztiona den mendia zaintzea eskatuko nieke". Horren haritik, zera gogoratu digu irakurle berak: "Orain dela urtebete gauza bera gertatu zen Urkulu bueltan, eta jende askok jasan behar izan genuen lokatza artetik igaro beharra, horretarako inolako beharrik ez genuenean. Hortaz, dagokionak, neurriak har ditzala, eta aritzen denak izan dezala errespetu pixka bat".

Sarean harrapatuta

Zer igartzen duzu faltan Aramaion?

Aramaioko udal zerbitzu, aisialdirako aukera, ekitaldi kultural eta bestelako zerbitzuen gainean galdetu dute *Goiena.net*-eko Aramaioko eztabaidan. Zer da herrian gehien faltan igartzen dena?

Hori izan da eztabaidarako galdera. Erantzunen artean, gehienak bat datoz esaterakoan Aramaion lehen dauden zerbitzuak mantendu edo hobetu behar direla. Hemen jaso ditugu iritzi batzuk.

KIROL INSTALAZIO EGOKIAK BEHAR DIRA

Nik faltan botatzen ditut kirol instalazio egokiak. Zelan dago pilotalekua? Pena ematen du: kristalak apurtuta, aldagelak edozein modutan, gimnasioa apurtuta eta abar luzea. Ni kirolaria izanda igerilekuak ere eskatuko nituzke (eskatzeagatik!), baina herrian daukaguna ere ez badugu zaintzen, zer eskatu daiteke bada?

Kirolaria / www.goiena.net

APURTU ETA GERO KONPONDU BEHAR DA

Deskalabru handi xamarra dago Aramaion. Garai batean egin ziren gauzak eta horiek mantentzen ere ez du lanik egiten Udalak. Deskalabru handi xamarra dago, bestela joan kultura etxera eta kiroldegira, pena ematen dute. Apurtzen diren kristalak ere ez dituzte konpontzen, eta ezin esan ikusten ez direnik, bista- bistan daude eta. Horrela jarraitzen badu kontuak, laster guztia erori egingo da eta orduan arazoak.

Bideei buruz hobe ezer ez esatea, laster autoak saldu eta gurdiak erosi beharko ditugu-eta... Garbitasuna? Zer da hori? Begiratu zaborra batzen den guneak zelan dauden, urteetan ez dute erratzik ikusi, ezta urik ere! Eta auzoetan ere berdin gertatzen da, han ere ez dago salbuespenik. Hitz batean esanda, hondamen galanta daukagu Aramaion.

Aramaixoarra / www.goiena.net

ORAIN DITUGUN ZERBITZUAK ZAINDU

Aramaioko herriak 1.500 biztanle inguru ditu eta zerbitzu aldetik uste dut nahiko zerbitzu eskaintzen dituela: Pilotalekua, zine eta antzerki aretoa, ludoteka, liburutegia, KZgunea... Baina behar duguna da dagoeneko herrian martxan ditugun zerbitzu horiek modu onean eskaintzea eta kudeatzea. Horretan jarri behar da nire ustez arreta, indar eta diru gehiena. Hain zuzen ere, Aramaioko Udalari horixe eskatuko nioke: zain dezala ondo herria eta orain ditugun zerbitzu guztiak txukun manten ditzala. Ez dut beste faltarik igartzen.

Egia da / www.goiena.net

AUZOEN ARTEKO HARREMANA HOBETU

Egia da zerbitzu batzuk badituela, baina Aramaioko auzoen arteko harremana ez dela oso handia pentsatzen dut. Aramaioko Udalak auzoen arteko harreman hori sustatu beharko luke eta zerbitzuak herri-gunetik auzoetara zabaldu.

Lolo / www.goiena.net

KULTUR EKINTZA GEHIAGO ANTOLATU

Nik kultur ekintza gehiago antolatzea nahiko nuke. Gustura joango nintzateke antzerki bat edo film bat ikustera astean zehar edo aste bukaeran. Badakit antolatzen direla, baina nik sarriagotan izatea nahiko nuke. Uste dut garrantzitsua dela, kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak eta horrelako ekitaldiak astero antolatzea herria bizirik mantentzeko eta herriari bizitasuna emateko.

Gaztea / www.goiena.net

GAZTE ASANBLADAK LAN HANDIA EGIN DU

Aramaion gazteentzako ez dago gauza askorik. Ondo egongo litzake kafe antzoki bat, edo bestela gaztetxe bat! Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak kristoren lana egin du, batez ere jaietan edo jaietatik kanpoko hainbat ekintza antolatzen. Herria bizirik mantentzen da Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladari esker!

ATGA / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Homesexualak ezkontzeko legea dela eta, alkate guztiek ezkondu beharko lituzkete bikote homosexualak ?

JOXERRA PEREZ |
GATZAGAKO ALKATEA

Nik neuk ez nioke uko egingo inor eskatzen etorriz gero. Tontakeria bat iruditzen zait homosexuala izateagatik ezetz esatea inori. Dena dela, ez dakit legeak noraino derrigortuko duen; horren arabera, arazoak egon ahal izango dira. Hala ere, nik neuk ez dut, oraingoz, inortxo ere ezkondu Gatzagan.

ITZIAR LAMARAIN |
PP-KO ZINEGOTZIA ARRASATEN

Bakoitza aske da nahi duena egiteko, beti ere kontzientzia eragozpenaren klausula erabiltzeko aukera badago, sinismen erlijiosoak argudiatuz, esaterako. Dena dela, kontzientzia eragozpena argudiatzen duenak ez dut uste beste inor derrigortu dezakeenik berak egin nahi ez duena egitera.

AMAIA ZABALETA |
ABOKATUA

Alkateak eta zinegotziak, beste zenbait alorretan gertatzen den bezala, legea betetzera behartuta daude. Bikote homosexualen ezkontzen gainean sortu den eztabaida espainiar eskumak bultzatu duen joera izan da, baina legea betetzeko eskatu beharra daukagu.

TXERRA BOLINAGA |
GAYTASUNA-KO KIDEA

Eskuina beti agertzen da banakako eta taldeko eskubideen kontra, baina kargua libreki hartzen dute, hortaz, gainerakoak bezala, legea betetzera behartuta daude. Zer gertatuko litzateke kontzientzia eragozpena arrazoituz alkate batek inmigrante bat ezkonduko ez balu, adibidez?

Egunkarietako harribitxiak

AIZU, EHAK-N AFILIATZEKO?
El Mundo egunkariak EHAKri lotutako erreportajea egin zuen atzo: kazetari bat, galiziar independentista dela esan, eta Donostian barrena ibili da hainbat egunetan EHAKn afiliatzeko asmoz. Ezin izan duela dio, egoitzarik ez dutela, inork ez dituela ezagutzen. EHAK benetan existitzen du? dio kazetariak.

'El Mundo'
2005-05-01

ELECCIONES VASCAS / OIGA, ¿PARA AFILIARSE AL PCTV?

«Desde antes de las elecciones [las fuerzas de seguridad] están metiendo muchos **ojeadores** por aquí [las herrikotabernas]. Vaya si no cuentan»

«Los jóvenes han votado al PCTV, pero hay muchos que **desconfían** de la vía política, aunque de momento hay que dar imagen de unión»

EHAK

DEBAGOIENA ERREPIDE SAREARENTZAT IRTENBIDEA ESKATZEN
El Diario Vascok gure ibarrean dugun errepide sare kaskarraren gaineko erreportajea egin zuen atzoko alean. Debagoieneko alkateek kritikatu egiten zuten sarea zaharkitua dagoela; baita autobus zerbitzuaren maiztasun eskasa ere. Bergarako alkate Victoriano Gallastegik, garraio publikoaren zerbitzua "desastre bat" dela zioen eta uste du zerbitzu hori tranbiarekin ondo koordinatzea irtenbidea litzatekeela. Arrasateko alkate Ignazio Lakunzak dio herritarren %3k baino ez duela autobusa erabiltzen. 100.000 ibilgailuk zeharkatzen dute egunero gure ibarra: 83.000 bertakoak dira eta gainerakoak kanpotik datoz. Garraio publikoak, berriz, milioi bat erabiltzaile ditu.

'El Diario Vasco'
2005-05-01

AL DÍA

El Alto Deba exige un transporte público eficaz que reduzca los 100.000 vehículos que soporta

Recuperación del tranvía

Porque tu futuro lo eliges tú.

Tira, tira...

Atzo.
Gaur.

Zulet 'El Diario Vasco' | 2005-V-02

Zorroztailea

Aurrera?

Duda izpirik ere ez izan, adiskide: zure lehentasun gastronomikoak edo orientazio sexuala edozein delarik ere, nik ditudan eskubide zibil berak zuk ere izan ditzazun gaur egun nahi ez duten horiek dibortzioaren aurka zeuden berberak dira. Jaungoikoa eta Ana Botella amorratzen dituena zera da, zu beren baimenik gabe zoriontsu izaten saiatzea.

Juan Jose Millas

'El Pais' | 2005-04-29

Gerardo Markuleta

Eman dezagun aurrera egin dugula. Gaztetxo ginela, gaizki, oso gaizki, pasatzen ikusi genituen gure adineko mutiko *bereziak* (neska *bereziei* ez zitzaien horrenbeste igartzen). Maritxu, marikoi, gixonerdi eta irain andana luze bat hartu nahi ez bazuten, besapean ezkutatu behar zuten beren luma, beren ahots fina sakon maskaratu, eta zigarroa ezker eskuaz hartu, hatzetan ondo sarturik.

Gehienek, zorionez, indarrak eta aukerak bildu zituzten gure kaiola txiki itxiari ihes egiteko, Gasteizera, Bartzelonara, Madrilera, Kanarietara edo are urrunago. Ez dauzkat ahaztuta, bidean geratu zirenak (zerurako bidean?).

Eman dezagun ez dugula atzera egin. Oraingo zinema eta telebista produktuetan, adibidez, personaia homosexualak ez dira barregarri huts izaten. Eta litekeena da gaur egun adineko emakume bati konplizitate irribarre batekin esaten entzutea: "Ba bai, gure Klaudio ere gay da, Borisen modukoa". Zein girotan den, ez dago ondo ikusita gaur egun marikoien txisteak kontatzea (libreago dira oraindik beltz eta elbarrienak).

Orain berriz, zuzenean boteretik eta bat batean, beste edonor bezala zibilez ezkontzeko aukera. Sexuaren gainetik berdintasuna aldarrikatzen duten legeak aspaldi debeku horrekin kontraesanean bazeuden ere. Baina berdintasuna kalean da, gure esku. Izango al du inork bere udaletxean ezkontzeko lasaitasunik? Zenbateko ausardia beharko du hala egiteko? Ezer gutxirako balio baitu ezkonduta egoteak zure auzoan inork onartzen ez bazaitu.

"Zein girotan den, ez dago ondo ikusita gaur egun marikoien txisteak kontatzea (libreago dira oraindik beltz eta elbarrienak)"

"Izango du inork bere udaletxean ezkontzeko lasaitasunik? Zenbateko ausardia beharko du hala egiteko?"

Egunkarietan irakurri dugu

'El Mundo'

ASKATASUNAREN PREZIOA

Kontzientzia eragozpenak balio du gayen arteko ezkontzarik ez egiteko. Eskubide konstituzionala da, lege arruntek onartu ala ez egin erabil daitekeena. Demokraziaren kalitatea neurtzen da kontzientzia eragozpenen kalitatearen arabera. Eragozleak bere kontzientziari hori zor diolako egiten du; horregatik eragiten dute errespetua.

Rafael Navarro Valls
2005-05-01

'Berria'

AUKERA GORRIA

Hondartza pribilegiatua tranpa bihurtu zaio Europako langileriari oraingoan; Estatu europar bakoitzeko ugazabek Estatua bera merkatu ekonomiko eta politiko propio gisa ondo lotzeari ekin diote. Eskuin politikok eta ekonomikoak, berdin Parisen, Italian edo Gasteiz eta Iruñeko gobernuetan, ugazaba globalen aldeko politikak babesten ditu.

Karmelo Landa
2005-05-01

'Gara'

PUTAKUMEAK

Norbaitek pentsa dezake Bushtarren amak puta izendapena lortzeko bigarren arrazoia irabazi duela. (...) Jeb Bushi, Floridako gobernadore putakumeari, ahoa bete zitzaion Terry Schiavo kasuan, jainkoak emandako bizitza pertsona batek ezin ken dezakeela zioenean. Eta orain, norbere burua babesteko, kalean tiro egitea baimendu du.

Asier Serrano
2005-05-01

'Deia'

ATENTATU SUIZIDA EGIPTON

Azkeneko hamabost egunetan ehunetik gora pertsonak galdu dute bizitza izaera fundamentalistako atentatuetan. Herriaren diru sarrera nagusia moztea dute helburu. Bestalde, atzo beste gauza bat ere jakin genuen: apirilaren 7ko atentatuagatik auziperatuta dagoenetako baten lehengusua hil egin dela, bihotzekoak jota, komisarian zegoela.

Editoriala
2005-05-01

ASTELEHENEKO Goienkaria

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Erredakzioa Marijo Deogracias, Jokin Etxebarria, Jon Unamuno, Jasone Zabala eta Larraitz Zeberio.

Jatorrizko diseinua Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Presidentea Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KIROLA

• Harriet Urteaga izan zen gairaile atzo Bergaran jokatutako 43. Labegaraieta ziklismo proban | 21
• Eskoriatzako areto futboleko taldeak 9-5 irabazi zion Frutas Adarra taldeari Intxautxuetan | 16

Eskoriatzako saskibaloi taldeak bolada onari agur esan zion zapatuan Lizarran | 19

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK



ARTXIBOA

Lur jota amaitu zuten Realeko jokalariek zapatuan. Real Madril baino askoz hobeak izan ziren jokoan, baina ez zuten asmatu izandako aukerak sartzen.

REALA I DATORREN DENBORALDIARI BEGIRA HASI BEHARKO DIRA TXURI-URDINAK

Ekainaren 30eko hauteskundeek erabakiko dute Realaren etorkizuna

Jokin Etxebarria

Nahiz eta Real Madrilen aurka galdu, oraindik ere ligako epaile izan daiteke Reala, azken jardunaldian Bartzelonak Donostian jokatzen du eta

Denboraldia amaitzeko lau partidu gelditzen badira ere, Reala dagoeneko datorren urtera begira jarri beharko da zapatuan *potoloak* sartu zituen bi golengatik. Asko aldatuko dira gauzak klub txuri-urdinean ekainaren 30eko hauteskundeen ostean. Zuzendaritzako kideek ez dutela jarraituko jakin eta gero, gauzak aldatu egingo direla espero dugu batek baino gehiagok. Hala ere, Realak duen zulo ekonomikoa nork estaliko zain bagaude, gaizki gaude, mirariak dagoeneko Lourdesen ere ez dira egiten eta. Ez dakit nork irtengo duen presidente ekainean, baina Realaren barruan gauza asko aldatu behar direla argi daukat; Roberto Olabe atezain ohiaren postua, besteak beste. Kontuak kontu, ekainera arte itxaron beharko dugu, gutxienez, Realaren etorkizunari buruzko argi printza batzuk ikusi ahal izateko.

DENBORALDI ARRAROA

Oso denboraldi arraroa izan da hasiera-hasieratik donostiarrena. Jende gazte askorekin hasi behar izan zuten denboraldia, Xabi Alonsok Liverpoolera alde egin zuen, eta denboraldi erdian *izar* bezala etorri zenak bere orrazkera Ingalaterra aldera eraman zuen. Gerora, zulo ekonomikoaren notiziak eskuetan egin zion eztanda zuzendaritzari. Denboraldi hasieran zailtasunak eduki arren, amaiera ona izan du Realak. Amorrorturen lan ona ezin da ukatu, eta deustuarraren eskutik azken hamar partiduetan maila mantentzeko puntu nahikoa lortu ditu talde txuri-urdinak.

LIGAKO EPAILE

Real Madrilen aurkako partiduarekin hasten zen ligako epaile izaten Reala. Madrildarrek baino askoz ere gehiago merezi arren, ezin izan zuten irabazi, Ronaldoren golak direla eta. Hala ere, Bartzelonak azken partidua Anoetan jokatzen duenez, liga norendako izango den donostiarrek erabaki dezakete.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• ZEIN AUKERATUKO ZENUKE REALEKO PRESIDENTE, ETA ZERGATIK?

PEDRO ETA MARI CARMEN | BERGARA

"Gure ustez Gallo buru duen plataforma da egokiena. Horrela aldaketa bat egongo litzateke"

"Gure ustez, Gallo buru duen plataforma da egokiena. Izan ere, horrela aldaketa egongo litzateke, eta klubak hori behar du. Horretaz gain, zaleekin harreman hobea egongo litzateke plataforma honetako kideekin".

ANE | BERGARA

"Denon Erreala; lanerako borondate onarekin ikusten dira"

"Denon Erreala jarriko nuke. Zuzendaritza honek egin duen kudeaketa baino hobea egingo dute, lanerako borondate onarekin ikusten dira eta".

LORENZO | BERGARA

"Olabek lan ona egin du eta ez nuke gaizki ikusiko bera aurkeztea"

"Nire ustez Olabek lan ona egin du eta ez nuke gaizki ikusiko bera aurkeztuko balitz. Baina Gazteluk edo Kortabarriak ere lan ona egingo lukete".

MIKEL ETA AITOR | BERGARA

"Guk Denon Erreala aukeratuko genuke. Kluba barrutik ondo ezagutzen dute"

"Guk Denon Erreala aukeratuko genuke. Bertan ibilitakoak dira, eta kluba barrutik ondo ezagutzen dute. Gainera, jendea taldearekin lotzeko estrategia aproposa izango litzateke. Hala ere, arazo ekonomikoa hobetzea zail ikusten dugu".

JOSU, JOSU ETA AITOR | BERGARA

"Denon Erreala da guretzako aukerarik aproposena. Kluba ezagutzen dute"

"Denon Erreala da guretzako aukerarik aproposena. Taldean jokatzen ibili dira, kluba barrutik ezagutzen dute, eta eurek jakingo dute nola eraman behar den klub donostiarra. Arazo ekonomikoarena zaila da konpontzen".

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Bartzelona-Albacete	2-0
At. Madril-Athletic	1-1
Racing-Betis	1-1
Sevilla-Deportivo	2-0
Mallorca-Espanyol	3-2
Reala-R. Madril	0-2
Numantzia-Valentzia	1-1
Vila-real-Getafe	4-0
Zaragoza-Osasuna	5-1
Levante-Malaga	0-1

HURRENGOAK

Deportivo-At. Madril
Valentzi-Bartzelona
R. Madril-Racing
Getafe-Reala
Betis-Sevilla
Athletic-Zaragoza
Albacete-Levante
Osasuna-Mallorca
Malaga-Vila-real
Espanyol-Numantzia

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1.**Bartzelona**	**78**	34	24	4	6	67	25
2.**Real Madril**	**72**	34	23	8	3	61	29
3.**Sevilla**	**58**	34	17	10	7	42	36
4.**Vila-real**	**55**	34	15	10	9	59	32
5.**Espanyol**	**53**	34	15	11	8	46	43
6.**Valentzia**	**53**	34	13	7	14	50	35
7.**Betis**	**52**	34	13	8	13	55	46
8.**Zaragoza**	**49**	34	14	13	7	47	47
9.**At. Madril**	**48**	34	13	12	9	37	28
10.**Athletic**	**48**	34	13	12	9	54	46
11. **Deportivo**	**46**	34	11	9	13	41	42
12.**Reala**	**45**	34	13	15	6	44	49
13.**Osasuna**	**43**	34	12	15	7	42	60
14.**Getafe**	**42**	34	11	14	9	33	42
15.**Malaga**	**42**	34	12	16	6	33	45
16.**Racing**	**38**	34	10	16	8	38	50
17.**Levante**	**35**	34	9	17	8	36	50
18.**Mallorca**	**31**	34	8	19	7	33	58
19.**Albacete**	**24**	34	5	20	9	28	51
20.**Numantzia**	**24**	34	5	20	9	25	55

Kiniela

KINIELA

1. Zaragoza-Osasuna	1
2. At. Madril-Athletic	1
3. Sevilla-Deportivo	1
4. Racing-Betis	X
5. Reala-R. Madril	2
6. Vila-real-Getafe	1
7. Levante-Malaga	2
8. Bartzelona-Albacete	1
9. Mallorca-Espanyol	1
10. Numantzia-Valentzia	X
11. Celta-Valladolid	1
12. Murtzia-Tenerife	1
13. Alaves-Salamanca	1
14. Cadiz-Cordoba	1

Athletic

Partidu ona jokatu zuen Athleticek, baina hiru puntuak ez zituen lortu

Etxeberriak sartutako golarekin Europa gertu ikusi zuten bilbotarrek, baina Colsak berriz urrundu zuen

Jon Unamuno

Kopa helburu nagusi moduan duten bi taldek jokatu zuten zapatuan. Partidu polita ikusi genuen. Lehen zatian etxekoek izan zituzten aukera gehiago, baina Arantzubiak gelditu ederrak egin zituen. Ezkerrok ere aukera paregabea izan zuen, baina Pereak atepetik atera zuen baloia.

Bigarren zatian etorri ziren golak. Etxeberria zelaira sartu berri zela, baloi bat hartu eta atzelaria atzean laga ostean, huts eta batekoa sartu zuen. Numantzia ere Valentziaren kontra irabazten zihoan eta Europa eskura jarri zitzaion Athletici. Hala ere, Colsak berdinketa egin zuen eta azkenean talde bakoitzak puntu bakarrarekin konformatu behar izan zuen. Emaitza txarra da bi taldeendako. Lau partidu bakarrik gelditzen dira eta Europara joateko postuetan sartzeko gero eta aukera gutxiago dituzte. Beste behin elkarren kontra joka dezakete Kopako finalean, baina aukeran, koltxoneroak beharrean, gorritxoak nahiago.

ZITA NAGUSIRAKO GUTXI FALTA DA

Maiatzaren 11. Hori da Athletic zale guztion egun desiratua. Hori bai, oraindik ere egun handiagoa izan liteke finala. Ametsa? Ez. San Mames orroka egongo da Betisen kontra jokatu beharreko partiduan eta jokalariek badakite hori. Yeste bera ere defentsa lanetan fin ikusiko dugu partiduan. Eta Valverdek ere, taldetik joan aurretik, oparirik onena eman nahiko dio Athletici.

Betis ligako talderik arriskutsuenetarikoa dugu. Aurre aldean jokalari biziak ditu eta abiaduraz baliatuz, gure defentsan mina egin dezakete. Hortxe dago gainera Athleticen zulo nagusia; izan ere, baloi asko oparitzen dituzte eta Oliveirak edo Joaquinek opari horiek ederki aprobetxatuko lituzkete. Hori badakigu bai guk eta bai Valverderen mutilek ere, beraz, eurengan konfiantza izan beharko dugu.

San Mames orroka egongo da Betisen kontra jokatu beharreko partiduan eta jokalariek badakite hori

Arantzubiaren partidu borobila

Defentsaren zutabe nagusia atezaina izan ohi da eta arlo horretan eskas jardun du Athleticek denboraldi honetan. Arantzubia ezezaguna ikusi dugu partidu gehienetan, konfiantzarik gabe eta kale asko eginez. Zapatuan berriro ikusi genuen geldiketa ederrak egiten eta horrek segurtasuna ematen dio taldeari.

Kopan Lafuentek jokatuko du orain arte moduan. Sevillan partidu polita egin zuen eta San Mamesen ere berdin ibiltzea komeni zaio taldeari.

Aurrealdea hanka motz dago

Ez dago bere momenturik goxoenean Athleticeko aurrealdea. Urzaiz eta Ezkerro hurrengo urtean non egongo diren ez jakiteak beharbada eragingo zuen eta ez dio batere mesederik egin taldeari. Fernando Llorentek lan txukuna egiten du, baina azkenaldi honetan ez dago fin atera begira. Etxeberriak izan ohi du giltza partidu askotan eta orain ere bera ikusten da aurrealdean momenturik onenean. Polborari sua emateko gar guztia ez erretzea beharrezkoa da.

AINTZANE AGIRRE

Bere oinetan izan zuen Imanolek bat eta hutsekoa, baina kontrol luzeegia egin zuen.

Aloñak azken 30 minuetan hiru puntuak lortu zituen

BERGARA
1-2
ALOÑA

Bergara | Sesma, Igarza (Elkoroberezibar 45. min.), Arana, Aitor, Arazkonaga, Agirre (Oskar 45. min.), Otero (Alejandro 77. min.), Aritz, Imanol (Garin 61. min.), Zubikarai (Lazpiur 86. min.) eta San Vicente.

Aloña | Jonan, Lopez (Olalde 45. min.), Alatz (Igartua 62. min.), Astola (Moiua 53. min.), Sanchez, Barrena, Garai, Biain (Aramendi 79. min.), Albizu, U. Arregi (I. Arregi 55. min.) eta Roberto.

Golak: 1-0 San Vicente. 1-1 Roberto. 1-2 Moiua.

Epailea: Atorrasagasti jauna. Ondo egon zen epailea. Amaieran zerbait aldrebestu zen jokoa, baina txartelekin ondo moztu zituen aldrebeskeriak.

Jon Unamuno

Arriskutik irteteko puntuak lortu zituen Aloñak Agorrosineko zelaian. Bestalde, Bergara putzuan gelditzen da eta oraindik ito ez den arren, ez zaio asko falta.

Etxekoak izan ziren nagusi lehen zatian. Gola sartzeaz gain, Imanolek eta Zubikaraik gehiago sartzeko aukerak izan zituzten. 40. minutuan sartu zuen gola area txikitik San Vicentek. Aloñak ez zuen aukera garbirik sortu lehenengo zatian.

GOLA BARKATZEAREN ONDORIOAK

Zubikaraik izan zuen bigarrena sartzeko aukera garbia, baina Jonanek geldiketa polita egin zuen. Aldaratzea Garinek kanpora jaurti zuen. Hurrengo jokaldian Robertok gol ederra sartu zuen eskumarekin eta hortxe amaitu zen partidua Bergararendako. Hurrengo jokaldian ondo baliogabetu zion Atorrasagasti epaileak gola Aloñari, bultzada batez baliatu ziren eta.

Asko jaitsi zen jokoaren maila hurrengo minutuetan. Bi taldeek baloi asko galtzen zituzten eta berdinketan amaituko zela pentsatzen genuen bertaratutakook. Hala eta guztiz ere, Moiuak azken hitza esateke zeukan . Aukera garbi bat izan ostean, Iñigo Arregik eskumatik egindako erdiraketa bat aprobetxatuz, buruaz bat eta bikoa sartu zuen. Bergarak ez zuen berdintzeko aukerarik izan eta hiru puntuek Oñatira alde egin zuten.

Bi taldeen egoera guztiz desberdina da. Lau partidu faltan, Bergara jaitsiera postuetan dago. Hurrengo astean Zestoan hiru puntuak derrigor lortu behar dituzte. Aloñak, aldiz, Hondarribiaren kontra lor dezake mailan mantentzea.

• NOLA IKUSI DUZUE PARTIDUA?

OSKAR | BERGARA

"Fisikoki behera etorri gara azken 30 minutuetan"

"Pena izan da gaurko partidua galtzea. 2-0 sartzeko aukera paregabea izan dugu eta hurrengo jokaldian berdinketa etorri da. Asko nabaritu dugu gola eta fisikoki behera etorri gara azken 30 minutuetan. Defentsan akats nabarmenak egin ditugu etxeko azken bi partiduetan eta 5 puntuk alde egin digute".

MOIUA | BERGARA

"Lortutako hirurekin puntu baten faltan gaude"

"Partidu gogorra izan da, eta gu oso pozik gaude lortutako garaipenarekin. Hurrengo astean azkeneko puntua lortu beharko dugu; izan ere, lortutako hiru puntuekin puntu baten faltan gaude mailan mantentzeko. Ea Bergarak ere mailari eustea lortzen duen", adierazi zuen garaipenaren gola sartu zuen Moiuak.

Partidu bikaina jokatu zuen UDAk Zumarragan

UROLA
1-5
UDA

A.G.

Gutxitan ikusten da horrelako markagailua futbolean eta alde izaten denean gauzak ondo egin diren seinale izaten da.

Hasieratik erakutsi zuten nagusitasuna aretxabaletarrek, baina zutoinarengatik eta atezainarengatik, lehen gola sartzea kostatu zitzaien. Horrela, etxekoak aurreratu ziren markagailuan. UDAko jokalariek berdin jokatzen jarraitu zuten, joko onaren ondorioz garaipena helduko zelako itxaropenarekin. Hala izan zen; izan ere, Imanolen eta Igorren golei esker, lehen zatian markagailuari buelta eman zioten.

ERABAT NAGUSI IZAN ZEN BIGARREN ZATIAN

Igorrek sartu zuen hirugarren gola falta baten bidez, eta partiduko momentu horretatik aurrera talde bakarra egon zen zelaian. Gol asko sartzeko aukerak izan zituzten eta beste bi heldu ziren. Horrela jokatuz gero, mailari eusteko ez dute arazorik izango.

ARTXIBOA

Lazpiurrek sartu zuen mondragoetarren lehen gola.

Erraz irabazi zion Mondrak Beti Gazteri

BETI GAZTE
0-3
MONDRA

Beti Gazte | Susperregi, Lasaga, Almandoz, Zudaire, Telletxea, Larruy, Irigoien (Fernandez 74. min.), Irazoki, Rodríguez (Saralegi 84. min.), Maia eta Ernandorena (Juanena 83. min.).

Mondra | Oier, Merkader, Barbarias (Jokin 82. min.), Argider, Lazpiur (Eldin 88. min.), Ruben, Arkaitz, Loiti (Keixi 62. min.), Julen (Inazio 80. min.), Illart eta Asier (Maikel 68. min.).

Golak: 0-1 Lazpiur. 0-2 Maikel. 0-3 Inazio.

A.G.

Mondra Beti Gazte baino gehiago izan zen partidu guztian zehar. Erraz irabazi zuen, eta bide batez Bergarari mesede ederra egin zion. Nahiz eta bigarren zatira arte golak ez ziren iritsi, lehen zatian gehiago izan ziren zerrajeroak. Beti Gaztek ederki erakutsi zuen zergatik dagoen sailkapeneko azken postuetan.

Lehen zatian ez zen joko gehiegirik ikusi, baina aukera garbienak Josu Zubiaren mutilek izan zituzten. Bigarren zatiaren hasierako minutuetan etxekoek aukera pare bat izan zuten, baina ilusio hutsa izan ziren aukera haiek. Handik gutxira, Julen Garmendiari penaltia egin zioten eta Lazpiurrek sareetara bota zuen. Maikelek bigarrena egin zuen eta etxekoak behera etorri ziren. Ordutik aurrera mondragoetarrek nahi izan zuten moduan jokatu zuten, eta etxekoen ezina nabari agertu zen. Josu Zubiak, gainera, ezohiko jokalariei minutuak emateko aprobetxatu ahal izan zuen.

• SENIOR MAILAKO NESKAK

AINTZANE AGIRRE

BERGARA 0 - REALA 10

Bi atal izan zituen zapatuko partiduak. 0-3 arte, Bergara partiduan sartuta egon zen eta, korner bidez edo Alkortak izandako aukera ezin hobe baten bidez, gol bat sartzea merezi izan zuten. Bigarren zatian heldu zen hirugarren gola eta handik aurrera etsi egin zuten bergararrek. Ondorioz, gol zaparrada etorri zen. Bosgarren daude sailkapenean eta hiru partidu gelditzen zaizkie liga bukatzeko. Hauetako bi etxean jokatuko dituzte eta helburua bi hauek irabaztea da.

• BIGARREN ERREGIONALA

Ezin izan zuten ezer egin La Salleren joko onaren aurka

ANTZUOLA
1-2
LA SALLE

A.G.

Aldaketak egiteko aukerarik gabe jokatu zuten zapatuko partidua Antzuolako nagusiek. Aurrean La Salle taldea zuten, talde biak paretsu daude sailkapenean.

Partidu hasiera nahiko orekatua izan zen, baina kanpotarrek lortu zuten lehen gola. Zorte txarra izan zuten, etxeko taldeak bere atean sartu zuen gola eta. Nekea azkar agertu zen Antzuolako jokalariengan, bero handia egiten baitzuen. La Salle, gol bateko abantailaz lasai jokatzen hasi zen, eta antzuolarrak ezinean zebiltzan. Bigarren gola ere egin zuten lehen zatia amaitu aurretik.

Bigarren zatian, Castrok egin zuen etxekoen gol bakarra, eta ez zen ezer gehiagotarako denborarik egon. Kanpotarrak gehiago izan ziren partidu guztian zehar, eta garaipena lortu zuten.

• OHOREZKO GAZTEAK

UDAk hortzak erakutsi zituen lehenengoaren aurrean

UDA
1-1
ANTIGUOKO

A.G.

Partidu polita eta zaila jokatu zuten zapatuan UDAko gazteek. Aurkaria lehen postuan dagoen Antiguoko taldea izan zen.

Lehen zatia nahiko parekatua izan zen, eta aukerak bi taldeentzat izan ziren, baina golak ez ziren iritsi bigarren zatira arte.

Bigarren zatian, UDAk hobeto jokatu zuen, baina lehen gola kanpotarrek sartu zuten epaileak penalti bat adierazi ondoren. UDAk lanean jarraitu zuen berdinketaren bila, eta hori ere penalti jaurtiketa baten ondoren etorri zen. Kortazarrek sartu zuen etxekoen gola.

Ondoren izandako aukerak ere, ugariak izan ziren garaipena lortu ahal izateko, baina puntuak banatu egin zituzten Ibarran. Datorren astean, sailkapenean bigarren dagoen Zumaiakoren aurka neurtu beharko dituzten indarrak.

• OHOREZKO GAZTEAK

Soilik ganorazko hamar minutu jokatuta puntua Zarautzendako

MONDRA
2-2
ZARAUTZ

Jokin Etxebarria

Hiru puntuak lortuta ia salbu leudeke jaitsiera postuetatik Arrasateko gazteak. Baina zapatukoa ez zen izan hiru puntuak lortzeko kontrario errazena. Zarautz sailkapeneko hirugarren postuan dago, eta talde sendoa dauka. Hala ere, etxekoek, puntu premian edo, partidu polita jokatu zuten. Batez ere lehen zatian. Hori bai, Zarauztarrek hamar minutu nahikoa izan zituzten, gutxienez puntu bat lortzeko.

Etxekoek baloi luzeetan min handia egiten zuten Herizen bitartez, eta horrelako jokaldi baten bidez lortu zuten markagailuan aurreratzea. Baina defentsan egindako bi hutsetan –partiduko bakarrak– Zarauzkoek buelta eman zioten markagailuari. Hala ere, euren atezaina ez zen finegi ibili eta etxekoek bigarrena egiteko aprobetxatu zuten.

Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

BATZUK ERREAKZIOAREN BILA, ETA BESTEAK ZULORA

Derbian Aloña irabazle, eta mailari eusteko borroka horretan pauso handi bat eman du; UDAk ere halaxe egin du. Bergarak aldiz, mamuak gertu ditu, eta hauek aldentzen lanak izango ditu gelditzen diren partiduetan. Oregi ipini zuten karguan jokalariak ezagutzen zituelako, eta taldea aurrera aterako zuelakoan, baina itxura ez da batere ona; batean, Tolosan gelditu ziren 3 puntuak, eta bestean, Aloñak Oñati aldera eraman zituen beste hiru. Ez dauka lan erraza.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Tolosa**	**73**	34
2. **EHU**	**71**	34
3. **Ordizia**	**63**	34
4. **Zarautz**	**58**	34
5. **Real Union**	**58**	34
6. **Trintxerpe**	**51**	34
7. **Mondra**	**48**	34
8. **Mutriku**	**45**	34
9. **Zestoa**	**44**	34
10. **Aloña Mendi**	**44**	34
11. **Pasaia**	**43**	34
12. **Hondarribia**	**42**	34
13. **Anaitasuna**	**41**	34
14. **Touring**	**40**	34
15. **Aretxabaleta**	**40**	34
16. **Orioko**	**39**	34
17. **B. Gazte**	**38**	34
18. **Urola**	**36**	34
19. **Bergara**	**35**	34
20. **Oiartzun**	**20**	34

Emaitzak

Beti Gazte-Mondra	0-3
Orioko-Pasaia	3-1
Urola-UDA	1-5
Ordizia-Touring	2-0
Mutriku-Zarautz	1-1
Oiartzun-Zestoa	0-0
Bergara-Aloña Mendi	1-2
Hondarribia-Tolosa	0-1
Trintxerpe-Anaita.	0-1
Real Union-EHU	2-3

Hurrengoak

EHU-Beti Gazte
Mondra-Orioko
Pasaia-Urola
UDA-Ordizia
Touring-Mutriku
Zarautz-Oiartzun
Zestoa-Bergara
Aloña Mendi-Hondarribia
Tolosa-Trintxerpe
Anaitasuna-Real Union

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Barakaldo**	**64**	29
2. **Tolosa**	**61**	29
3. **San Inazio**	**59**	29
4. **Durango**	**59**	29
5. **Eibar**	**49**	29
6. **San Martzial**	**46**	29
7. **Elgoibar**	**42**	29
8. **Aloña Mendi**	**42**	29
9. **Zalla**	**41**	28
10. **Zugatzarte**	**41**	29
11. **Lagun Onak**	**37**	29
12. **Amorebieta**	**34**	29
13. **Olarizu**	**32**	28
14. **Bermeo**	**26**	29
15. **Sp. Herrera**	**25**	29
16. **Alde Zaharra**	**7**	29

Emaitzak

San Inazio-Zugatzarte	2-2
Sp. Herrera-Eibar	1-1
Durango-Elgoibar	1-0
Zalla-Olarizu	Atz.
San Martzial-Aloña	3-1
Amoreb-Lagun O.	3-4
Bermeo-Tolosa	1-1
Alde Z.-Barakaldo	0-4

Emaitzak

Aste honetako jardunaldiarekin liga amaitzen da. Orain Euskadiko Kopa jokatuko dute. Aloñak Sporting de Herreraren aurka jokatu beharko du bere lehen partidua.

BESTELAKOAK

OHOREZKO GAZTEAK

UDA-Antiguoko	1-1
Arrasate-Zarautz	2-2

LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Burumendi-Arrasate	4-0
Bergara-Urola	11-1

BIGARREN MAILAKO GAZTEAK

Gure Txokoa-Bergara	0-1
Oiartzun-Antzuola	0-4

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Eibar-Aloña Mendi	3-1
Hernani-Arrasate	4-1
Bergara-Antiguoko	2-0

LEHEN MAILAKO KADETEAK

Aurrera-UDA Arizmendi	5-2

BIGARREN MAILAKO KADETEAK

UDA Arizmendi	Atsedena
Bergara	Atsedena
Antzuola	Atsedena

EMAKUMEZKOEN LIGA(IGOERA)

Vasconia-Aloña Mendi	2-0
Almen UDA-Intxaurdi	2-3
Mondra-Luberri	3-0
Bergara-Reala	0-10

EMAKUMEEN F-8 LIGA

Bergara-Zarautz	0-2
Antzuola	Atsedena
Almen UDA	Atsedena
ALmen Arizmendi	Atsedena

INFANTIL OHOREZKO MAILA

UDA Arizmendi-Real Union	2-0

INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)

Urola-Aloña Mendi	0-4

INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)

Arrasate-Amaikak Bat	6-1

INFANTIL TXIKI (KOPA)

UDA Arizmendi-Elgoibar	1-2

INFANTIL F-8 (AZKEN FASEA)

Bergara-Antzuola	b.b

ALEBINAK (2. FASEA)

Añorga-Bergara	4-2
Vasconia-Aloña Mendi	1-1
Ostadar-Arrasate	3-2

BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)

Sailkapena

	Punt.	J.
1. **Lasarte Oria**	**22**	11
2. **Amaroz**	**22**	11
3. **La Salle**	**20**	11
4. **Urki**	**19**	11
5. **Antzuola**	**14**	11
6. **Zestoa**	**6**	11
7. **Donibane**	**3**	10

Emaitzak

Antzuola- La Salle	1-2
Zestoa-Amaroz	0-3
Urki-Donibane	Atz.
Lasarte Oria	Atsedena

Hurrengoak

Amaroz-Antzuola
Donibane-Zestoa
La Salle-Lasarte Oria
Urki Atsedena

MENDI LASTERKETA | 16,5 KILOMETROKO PROBAN 270 KORRIKALARIK HARTU ZUTEN PARTE

Lasterketa ikusgarria Aloñako mendi magaletan

Gizonetan Zincak erabaki zuen proba jaitsieran eta Olazabalek erraz irabazi zuen emakumeetan

Debagoienetik 59 korrikalarik hartu zuten parte proban eta horietatik 29 oñatiarrak izan ziren

Jon Unamuno

Arrakasta izugarria izan zuen Aloñako lehenengo igoerak. Eguraldia ere lagun izan zuen probak eta horrek asko laguntzen du. Ibilbidea ezezaguna zen parte-hartzaile gehienendako eta batek edo bestek aldaparen batekin sorpresa izan zuen. Hala ere, jaitsiera izan zen gogorrena. Ordurako hankak gogorturik zituzten korrikalariek eta lurraren kontrako kolpeek min handia eman zieten zangoetan.

Gogor hasi zuten lasterketa korrikalariek eta hasieratik taldetxo bat aurreratu zen. Urtiagainen Zinca, Garin, Mendiola, Urdanpilleta, Ezpeleta eta Olabarria pasatu ziren besteengandik zertxobait aurreratuak. Nesketan Olazabal bakarrik zihoan ordurako. Garinek erritmoa handitu zuen eta Belarren 10 segundo ateratzen zizkion Zincari. Mendiola 34 segundora pasatu zen eta zertxobait atzerago pasa ziren Olabarria eta Urdanpilleta. Olazabalek gero eta diferentzia handiagoa zuen eta bere erritmoari jarraituz garaipena poltsikoratuko zuela bazekien. Aloñako puntan ez ziren gauzak asko aldatu. Garin pasatu zen lehenengo postuan eta hurrengo korrikalariak Belarreko berak izan ziren.

JAITSIERA ERABAKIGARRIA

Igotako dena jaitsi behar zuten korrikalariek eta hori izan zen Zincaren indargunea eta Garinen ahulgunea. Emakumeetan abantaila handia zuen Olazabalek eta ez zuen arazorik izan lehenengo postuari eusteko. Helmugan, leher eginda, Zinca izan zen lehenengoa. Atzetik Olabarria heldu zen eta hirugarren Debagoieneko lehena: Mendiola.

Antolatzaileak pozik agertu ziren lasterketarekin. Parte-hartze handia egoteaz gain, itxura ona eman zuen lasterketak eta parte-hartzaileak zapore onarekin gelditu ziren.

GOITB-K SAIO BEREZIA

Bertan izan genituen GOITB-ko lankideak eta martitzenean 22:30ean eta eguaztenean eguerdiko 15:45ean eta gabeko 21:00etan saio berezia eskainiko dute. Lasterketaren irudiez gain, protagonisten inpresioak entzuteko aukera ere egongo da. Bestetik, lasterketako antolatzaile eta parte-hartzaile izan den Iban Isasti ere izango da platoan igoera komentatzeko.

OHIANA ELORTZA

Aloña mendi gaina pasatuta, Aitor Urraza oñatiarra eta Leire Ezpeleta arrasatearra Oñatira bidean.

IONUT ZINCA | GASTEIZ

"Jaitsieran dena emanda lortu dut Garin aurreratzea"

Nola ikusi duzu zure burua horrelako lasterketa motz eta gogorrean?

Ondo. Hasieratik topera irten naiz eta Garinekin batera jo dut aurrera. Igoera gogorra izan da, baina aldapa behera gehiago sufritu dut; izan ere, eskuin oinazpian mina nuen.

Hala ere aldapa behera izan da zure garaipenaren gakoa.

Hala da. Mina izan arren, jaitsieran dena emanda Garin aurreratzea lortu dut. Banekien berak ere asko sufrituko zuela eta erritmo bizia ezarri dut. Diferentzia hartu ahala, garaipena gerturago ikusi

AINTZANE AGIRRE

dut eta minaren sentsazioa ahazten joan zait.

Aloñako igoera irabazita, zein da zure hurrengo helburua?

Lehenik eta behin gaurko lasterketa errekuperatu behar dut. Baina hemendik aurrera Euskadiko Mendi Lasterketen sailkapen orokorra irabaztea da nire helburu nagusia. Aizkorriko maratoian ere parte hartuko dut eta postu ona lortzea espero dut.

Bukatzeko, zer moduzko antolaketa iruditu zaizu?

Ez dut inongo kexarik eta ibilbidea oso polita izan da. Jende asko egon da animatzen eta horrek asko laguntzen digu. Lehenengo urtea izateko hamarrekoa merezi dute antolaketan jardun dutenek.

ALIZIA OLAZABAL | IRUN

"Forma onean nago eta nire erritmoan joanda irabazi dut"

Aurreko astean Adarramendin garaipena eta oraingoan Aloñako igoeran. Nork gelditu zaitu?

(Barreak). Egia esan forma onean nago eta nire erritmoan korrika eginez irabazi dut proba. Hasieratik abantaila lortu dut bigarren neskarekiko eta gustura egin dut ibilbidea. Ez nuen ezagutzen eta aldapa batzuetan oinez joan naiz. Oso polita iruditu zait ibilbidea. Jende asko zegoen animatzen eta txaloen artean nekeak ahaztu egiten dira. Aldapa behera erritmo polita hartu dut eta Oñatira bizi-bizi heldu naiz.

AINTZANE AGIRRE

Duzun forma ikusita, Aizkorriko maratoia ere zure helburuen tartean al dago?

Gehiegitxo iruditzen zait lasterketa horretan irabaztea nire helburua dela esatea. Aizkorriko lasterketa oso gogorra eta luzea da. Bukatuta pozik gelditu nintzateke.

Nolakoa iruditu zaizu Aloñako igoeraren antolaketa?

Lehenengo aldia izateko lan txukuna egin dute. Ikusten da zaletuak direla eta ondo zaindu gaituzte. Eguraldiak ere asko lagundu digu. Zapatuan zegoen beroa izan bagenu, hidratazio falta handia izango genukeen. Hala ere, ura edateko postutxo asko zeuden eta horri esker, nik behintzat, ez dut hidratazio arazorik izan.

ALOÑAKO I. IGOERA

AINTZANE AGIRRE

Leher eginda, baina pozik. Pena ematen zuen Ionut Zincak helmugan. Heldu bezain pronto, bere burua lurrera bota eta hantxe egon zen denbora luzez. Hala ere, garaipena lortuta, pozik ageri zen.

OIHANA ELORZA

Joxe Mendiola. Hirugarren gelditu zen oñatiarra. Antolakuntzan ibiltzeaz gain, lasterketan ere bikain ibili zen. Antolakuntzako kide batekin eta zaldun batekin agertzen da argazkian.

OIHANA ELORZA

Belarretik gora. Aldaparik gogorrenetarikoak Belarren izan zituzten korrikalariek. Ordura arte nahikoa igota zuten eta aldapa hau gehienek oinez igo zuten.

OIHANA ELORZA

Podiuma. Xanpainaren momentua une goxoa izan ohi da. Argazkian lasterketan lehenengoak izan zirenak agertzen dira eta Ionut Zincak honetan ere azkarra dela erakutsi zuen.

Emaitzak

LEHENENGO GIZONEZKOAK

1. Ionut Zinca	(1:14:13)
2. Javi Olabarria	(1:14:35)
3. Joxe Mendiola	(1:16:01)
4. Juan Mari Garin	(1:17:10)
6. Asier Urdanpilleta	(1:17:30)
7. Iker Karrera	(1:18:27)
8. Josean Estenaga	(1:19:47)
9. Martin Irizar	(1:20:18)
10. Arkaitz Zamakona	(1:20:32)
11. Mikel Navarro	(1:21:41)
12. Joxi Garmendia	(1:21:45)
13. Unai Santamaria	(1:21:49)
14. Jose Manuel Otermin	(1:22:00)
15. Aritz Kortabarria	(1:22:09)
16. Andres Unzurrunzaga	(1:22:18)
17. Jesus San Pedro	(1:22:28)
18. Argider Isasti	(1:22:48)
19. Jose Lagardera	(1:23:12)
20. Iñaki Mendoza	(1:23:25)

LEHENENGO EMAKUMEZKOAK

1. Alicia Olazabal	(1:32:54)
2. Alicia Romero	(1:37:18)
3. Nerea Amilibia	(1:42:11)
4. Leire Ezpeleta	1:46:07)
5. Elena Perez	(1:47:00)
6. Loli Benitez	(1:51:51)
7. Ana Arkauz	(2:24:11)

LEHENENGO DEBAGOIENDARRAK

3. Joxe Mendiola	(1:16:01)
5. Asier Urdanpilleta	(1:17:30)
15. Aritz Kortabarria	(1:22:09)
18. Argider Isasti	(1:22:48)
33. Juanma Martinez	(1:26:31)
41. Joseba Blazquez	(1:27:45)
47. Josean Kerexeta	(1:28:55)
48. Joxu Arana	(1:29:02)
57. Jon Aizpeurrutia	(1:30:53)
60. Jose Antonio Larrea	(1:31:03)
65. Cesar Bastardo	(1:31:52)
71. Iñigo Altuna	(1:32:49)
85. Asier Elkorobarrutia	(1:34:00)
87. Imanol Molinero	(1:34:12)
93. Iban Isasti	(1:35:23)
110. Jesus Zabaleta	(1:36:46)
111. Aritz Errasti	(1:37:00)
114. Mikel Arrese	(1:37:34)
115. Jon Unamuno	(1:37:46)
119. Imanol Gurudi	(1:38:53)
135. Jesus Manuel Gomez	(1:41:52)
140. Josu Cascon	(1:42:08)
144. Carlos Gonzalez	(1:42:33)
145. Xabier Elkoro	(1:42:46)
146. Asier Eraña	(1:43:16)
149. Iker Laskurain	(1:43:45)
150. Mikel Madinagoitia	(1:43:46)
151. Iban Guridi	(1:43:47)
155. Kepa Larrea	(1:44:23)
157. Miguel Angel Igartua	(1:45:12)

Goazen!
Autoen gaineko gehigarria, maiatzaren 6an, egubakoitza, Goienkariarekin batera

Etxe hauen laguntzarekin: Mikel Lasa aseguruak • Fiat kanpazar • Talleres Blanco • Teknokar • Mugarri • Murillo autoak • Jon autoak • Desacristal • Markiegi autoak • Leniz garajea • Goiko leniz • Udalaitz • Chapime • Mapfre • Lagun garajea • Elgoibarko institutua • 4quatro4 • Zurich aseguruak • Giauto • Autoberri

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

• KADETE MAILA

Kontraerasoek erabaki zuten partidua Oñatin

Etxekoak bigarren zatian hobeto aritu ziren, batez ere kontraerasoak egiterako orduan

VERKOL ALOÑA
31-23
ZARAUTZ

Verkol Aloña | Guridi, Quintas, Barrena (11), Maiztegi, N. Aranburu, Herrero (5), Lizarra (9), Telleria, M. Aranburu, Mugarza, Lopez, Garcia (6), Ugarte eta Karmona.

Zarautz | Irastoeza, Beizama, Agirrezabal, Goikoetxea, Benitez, Etxabe, Aizpurua (5), Isasi, Jauregi (4), Inaxio (1), Sayago, Ondarra (7) eta Abadia (6).

Bost minuturo golak: 1-2; 2-4; 5-6; 6-8; 10-9; 13-13; 16-13; 18-14; 23-16; 28-20 eta 31-23.

AINTZANE AGIRRE

Zarautzek baloi asko galdu zituen partiduan zehar, eta etxekoak fin ibili ziren kontraerasoan.

Jasone Zabala

Partidu polita ikusi genuen zapatuan Zubikoa kiroldegian. Oñatiarrek Zarautzen aurkako partidua jokatu zuten. Etxekoak joko lasaia egiten hasi ziren, eta zarauztarrek joko hobea erakutsi zuten. Jokoa berdinduta joan zen hasieran, baina etxekoek kontraeraso bat baino gehiago ederki amaitu zuten. Lehen zatiaren amaierara 13nako berdinketarekin heldu ziren.

ALOÑA NAGUSI

Bigarren zatia, gol zaparrada ederra sartuz hasi zuten etxekoek. 3 eta 0 eko partziala eginez. Zarauztarrek beraien intentsitatea jaitsi egin zuten, eta etxekoek, behin eta berriz, kontraerasoak jokatu zituzten, kanpotarrak baloi asko galtzen ari baitziren. Aloña joko hobea egiten ari zen, eta baloia hobeto mugituz. 7. minutuan, kanpokoen jokalari bat lesionatu egin zen, eta honek kanpokoen kontzentrazioa galtzea ekarri zuen.

Hemendik aurrera, jokoa gogortu egin zen, eta falta zatarrak ikusi ziren bi taldeen aldetik. Aloñakoek ordurako nahiko abantaila zuten markagailuan, eta mantentzen jakin zuten. Azken minutuetan, Zarautzek bere alde eduki zituen penalti jaurtiketa ugari markagailuko aldea murrizteko, baina huts egin zuten.

Azkenean, Aloñak Zarautzek baino lasaitasun handiagoa erakutsi zuen, batez ere erasoko jokoan eta partidua Oñatin, etxean, gelditu zen.

• KADETE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

AINTZANE AGIRRE

ALOÑA 28 - ZARAUTZ 28

Azken jokaldian berdindu zuten Zarauzkoek partidua Aloña Mendikoen aurka. Denboraz kanpoko falta jaurtiketa baten bitartez, hain zuzen ere. Partidua oso berdindua izan zen, eta bakoitzarentzat zati bana izan zutela esan daiteke. Hala ere, markagailua beti ibili zen parekatuta. Bigarren zatian etxekoek lan bikaina egin zuten defentsan, eta kostakoek burua galdu zuten apur bat. Hori aprobetxatuta, abantaila hartu zuten etxekoek. Baina, baita laster lo hartu ere, eta ez zuten abantaila hori mantentzen jakin izan.

• KADETE MAILA

AINTZANE AGIRRE

BERGARA 22 - ELGOIBAR 20

Kopako bigarren partiduan garaipena lortu zuten Xabier Lijoren mutilek. Ligan, talde honen aurka galdu egin zuten, eta gogo handiz zeuden etxekoak. Lehen zatian, bergararrak beti aurretik ibili ziren, joko ona eginez. Bigarrenean berriz, berdintasun gehiago egon zen. Etxekoek, 5 eta 0eko partziala egin zuten, eta erlaxatu egin ziren. Elgoibarkoak, gol batez irabazten jarri ziren, baina azken minutuetan etxekoek erreakzionatu egin zuten, eta larri izan bazen ere, bi golegatik irabazi zuten.

Gorabeherak

HIRU TALDE NAGUSIEK JAI

Ez Arrikrutzek, ez Bergarak, eta ezta AGR Arrasatek ere ez dute partidurik jokatu asteburu honetan. Lehenengo biek denboraldia bukatu dutelako dagoeneko. Oñatiarrek etxeko lanak ongi bete dituzte denboraldian zehar eta mailari eustea lortu dute. Bergararrak berriz, hasieratik kaxkar ibili dira, eta ezin izan diote maila eutsi. Beraz, datorren denboraldian lehen territorialean jokatuko dute. AGR Arrasateri dagokionez, igoera fasea jokatzen dabiltza, baina aste honetako partidua, Donibaneren aurka jokatu behar zutena, atzeratu egin dute eta asteburuaz gozatu ahal izan dute.

ANE BARRENA

Aipatzekoa da Ane Barrenak eginiko lana asteburu honetan. 11 gol sartu zituen Verkol Aloña kadeteetako taldeko jokalariak. Berak sartutako golak eta talde guztiak defentsan egindako lan ona izan ziren oñatiarrek zarauztarren kontrako partidua irabazi ahal izateko gakoetariko batzuk.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN TERRITORIALA IGOERA FASEA	
AGR Arrasate-Donibane	b.b.
LEHEN ETA BIGARREN TERRITORIALA (KOPA)	
Arrasate	Atsedena
Aloña Mendi	Atsedena
Bergara	Atsedena
SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA	
Verkol Aloña	Atsedena
GAZTE MAILAKO MUTILEN GIPUZKOAKO KOPA	
Gatz Museoa Jakion-Aitxuri	b.b
Aloña Mendi-Elgoibar	26-21
GAZTE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA	
Arrasate	Atsedena
Bergara	Atsedena
Verkol Aloña	Atsedena
KADETE MAILAKO MUTILEN GIPUZKOAKO KOPA	
Aloña Mendi-Zarautz	28-28
Bergara-Elgoibar	22-20
Arrasate	Atsedena
KADETE MAILAKO NESKEN GIPUZKOAKO KOPA	
Verkol Aloña-Euskalduna tab.	31-23

• LEHEN MAILA (FEDERAZIO KOPA)

Etxeko azken partidua ezin irabazi

Mugarri Alkesakoek lehen zatian bakarrik eutsi zieten durangarrei. Gero, erasoan oso trabatuta jokatu eta azkenean, jipoia jaso zuten

MUGARRI ALKESA
68-85
TABIRAKO

Mugarri Alkesa | Gamarra, Lazpiur, Mikel Biain, Herzog (3), Kinatan (26), Alarcia (10), Aranburu (5), Iñigo Biain (20) eta Isasa (4).

Tabirako | Rodriguez (8), Calvo (5), Quero (5), Garitaonaindia (2), Onaindia (21), Carreto (30), Astorkia, Arkarazo (4), Unamuniaga, Gonzalez (8) eta Garcia (2).

Laurdenetato emaitzak: Lehen laurdena 17-13. Bigarren laurdena 39-37. Hirugarren laurdena 52-60. Laugarren laurdena 68-85.

Jokin Etxebarria

Etxean jokatutako denboraldiko azken partidua ezin izan zuen irabazi Mugarri Alkesak. Aukera polita zuten Txinatik etorri berria den Jokin Lazpiurri garaipena eskaintzeko, baina taldeak izan zituen bajak –Mallabiabarrenarena batez ere–, eta Gamarrak minutu bat bera ere ezin jokatu izana gehiegitxo izan zen Gorka Zurutuzak zuzentzen duen taldearendako.

Esan liteke, joan den astean galdu eta gero eman zutela etxekoek denboraldia amaitutzat. Izan ere, dagoeneko txapelketako finalera iristeko aukera guztiak galduta zituzten. Baina etxean jokatutako azken partidua izanda, Iturripera gerturatutakoei ikuskizun polit bat eskaintzeko aukera galdu zuten. Erasoan baloia mugitzeko arazoek eta defentsan egindako zenbait huts tontok partidua Durangokoen alde erabakita utzi zuten.

AINTZANE AGIRRE

Taula azpian, berriz ere arazoak izan zituzten Mugarri Alkesako mutilek.

LEHEN ZATIAN ONDO EUTSI

Ezin esan daiteke partidu guztian gaizki jokatu zutenik etxekoek. Lehen zatia nahiko txukuna izan zen. Nahiz eta erasoan finegi ibili ez ziren, defentsako lana ona izan zen. Horrek markagailuan denbora guztian gainetik mantentzea ahalbidetu zuen, nahiz eta diferentziak ez ziren handiegiak izan.

Hirugarren laurdenetik aurrera iritsi ziren arazoak. Atsedenaldian erasotzeko ideiak aldageletan utzi zituztela ematen zuen. Denbora guztian bakoitzak bere erara eraso egin nahi izan zuen, eta behin eta berriz Durangokoen defentsaren aurka talka egiten zuten, frontoia bailitzan. Gainera, kanpokoek ez zioten saskiratzeak lortzeari utzi. Etxekoen defentsak zenbait huts egin zituelako, gainera, markagailuko abantaila gutxika-gutxika handitzen joan zen.

Laugarren laurdenean ere, erasora begira, arazo berak izan zituzten. Eta eskerrak Durangokoak ere finegi ez ziren ibili, bestela azken emaitza eskandalu hutsa izango litzateke. Gainera, etxekoek erasoan izandako arazoei epaileek zenbait jokalditan ez zutela asmatu gehitu behar zaio. Beti ere etxekoen kontra. Erabaki hauek, Iñigo Biain partidutik atera zuten. Ordutik aurrera, lehen baino zailago egin zitzaien erasotzea etxekoei, taula azpian min egiten duen jokalaria galdu zuten eta. Kanpokoak nahiko eroso sentitu ziren Iñigo Biain kendu eta gero, eta erasoan saskiratze asko lortu zituzten taula azpian.

Dagoeneko datorren urteko denboraldiari begira jarri beharko dira arrasatearrak, nahiz eta oraindik, datorren astean azken partidua jokatu beharra duten.

Ezin bolada onari jarraipena eman

ONCINEDA
69-64
ESKORIATZA

Oncineda | Sanchez (3), Andosto (3), Urabaien (2), Fernandez (2), Olarri (15), San Martin (8), Abarondo (5), A. Martinez (9), T Martinez (19) eta Garcia (3).

Eskoriatza | Usabiaga (13), Laborda (4), Gomez (3), Sebastian (2), Murillo (9), Etxebarria (14), Soriano, Exposito (12), Etxeberria (2), Alarcia (5).

Laurdenetato emaitzak: Lehen laurdena: 16-18. Bigarren laurdena: 31-30. Hirugarren laurdena: 37-50. Laugarren laurdena: 69-64.

A.G.

Zapatuan, Lizarra aldean izan zuten Eskoriatzako neskek jaitsiera faseko seigarren partidua.

Partidu orekatua izan zen hasieratik; bi taldeek ederki jokatu zituzten hasierako minutuak. Atsedenaldira eskoriatzarrak puntu bateko desabantailaz joan ziren. Hirugarren laurdenean, Fernando Rasoren neskek 14 puntuko abantaila izan zuten, baina laugarren laurdenean, intentsitatea jaitsi zuten, eta hori nabaritu egin zen.

LAUGARREN LAURDEN TXARRA

Azken laurdenean, etxeko taldeak zuen guztia eman zuen, eta partiduaren bila joan ziren. Presioa egiten hasi ziren. Pixkanaka eskoriatzarren abantaila jaisten joan ziren, eta nafarrak saskiratzeetan asmatzen hasi ziren. Hiruko bi saskiratze jarraian sartu zituzten. Momentu horretan, eskoriatzarrak ezer egin ezinda gelditu ziren, eta azkenean, garaipena Nafarroan gelditu zen. Nafarrak hirugarren daude sailkapenean, eta eskoriatzarrak laugarren.

ARTXIBOA

Eskoriatzako neskek ezin izan zuten seigarren garaipena lortu.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Mugarri Alkesa-Tabirako	68-85

SENIOR MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Candy BKE	Atsedena
Aloña Mendi	Atsedena

GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Mugarri Alkesa	Atsedena
Araneta	Atsedena
Aloña Mendi	Atsedena

KADETE MAILA

Mugarri Alkesa	Atsedena
Lacor	Atsedena
Aloña Mendi	Atsedena

NESKEN BIGARREN MAILA

Oncineda-Eskoriatza	69-64

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi	Atsedena
Eskoriatza	Atsedena

KADETE NESKAK

Bergara	Atsedena
Eskoriatza	Atsedena

Pilota

• PROFESIONALAK

Defentsa bikaina erakutsi zuten bi pilotariek, baina Irujoren sakeak min egin zion Olaizolari

Goizuetarrak nahi baino gehiago sufritu zuen, eta ia partidu guztian defentsa lanetan aritu zen

IRUJO
22-16
OLAIZOLA I

Iraupena: Ordu bat.

Tanteoa: 1-1, 2-3, 5-3, 6-4, 8-5, 10-7, 12-9, 14-9, 15-11, 15-15, 18-16, 21-16, 22-16.

AINTZANE AGIRRE

Irujok Olaizola menpean hartu zuen partidu gogor batean.

Jasone Zabala

Partidu gogorra ikusi genuen atzokoan Bergaran. Martinez de Irujok eskuin eskua lesionatuta zuen arren, ederki moldatu zen Olaizola I. mendean hartzeko.

Partidua hasieratik kontrolatu zuen Iberoko aurrelariak. Sakean bikain aritu zen, eta Olaizolak agerian utzi zuen beste behin, sakea errestatzea ez dela berarendako.

Irujok 9 puntu egin zituen sakez, eta 15-9raino joan zen. Olaizola ederki defendatu zen behin eta berriz, eta tanto gogorrak jokatu zituzten. Zeharo nekatuta zen goizuetarra ordurako. Irujok nahi izan zuen bezala jokatu zuen. Partidua erraz erabaki zezakeenean, entrenamenduan arituko balitz bezala, Olaizolak beste 6 tanto egin zituen jarraian. Hala, partidua 15era berdindu zuen. Hortik aurrera asko sufritu zuen Olaizolak, baina airez ahal izan zuen bezala defendatu zen. Defentsa ederra erakutsi zuten biek, baina Olaizola oso nekatuta zegoen. Azkenean, 22 eta 16 Iberokoa irabazle. Patxi Ruiz izango du zain final laurdenetan Irujok.

Olaizolak ere egin zizkion sakez 5 tanto Irujori, baina ordurako aldea handia zen

Bergarako pilotalekua ikuslez bete zen, eta han bildutako guztiek ederki gozatu zuten

BESTE BI PARTIDU

Beste bi partidu ere izan ziren atzo, Bergaran: Capellan eta Lasa III.ak 18, Del Rey eta Goñi III.ak 22; Galartza V.ak 11,Chafee eta Nalda III.ak 16.

Adituen iritzia

"10-15ean Irujok nahi izan balu, partidua azkar asko bukatuko zen, baina Olaizolari sakez 4 tanto egiten utzi dio. Orokorrean ikusi da, Iberokoa Olaizola baino gehiago dela. Asier hasieran ondo aritu da, baina nekatuta iritsi da amaierara, eta ezin izan du Irujoren dejadekin. Irujok bikain defendatu ditu behin eta berriz Asierren eskuinkadak, baina ez du ezer gehiago egin Goizuetako aurrelariak. Garaipen ederra eskuratu du Irujok".

PACO MARTINEZ | PILOTARI OHIA

"Partidua gogorra izan da. Asier nekatuta iritsi da 15 eta 9ra. Baina sakea hartu du eta 4 tanto egin ditu jarraian. Olaizolak defentsa bikaina erakutsi du, baina ikusi da Irujok baliabide gehiago dituela, bai sakean eta baita tantoa amaitzerako orduan ere. Errazago amaitu ahal izan ditu Irujok tantoak eta Olaizolak ez du ezertarako aukerarik izan. Irujoren garaipenari ezin zaio ezer gehiago eskatu. Orain ikusi behar, Ruizen aurka zer egiten duen".

ANTTON MAIZ | PILOTARI OHIA

Areto Futbola

Etxeko partidua 9-5 irabazita, hurrengo partidura begira jarri behar

A.G.

Partidu gogorra izan zen Frutas Adarraren kontra jokatutakoa. Egurra eman zuten kanpokoek eta txartel asko ikusi zituzten. Urduri jokatu zuten etxekoek, baina puntuak etxean gelditu ziren.

HURRENGO ASTEAN LIDERGOA JOKOAN

Igoera lortuta, ligako lehen postua lortzea dute helburu eskoriatzarrek. Muskiz dago orain lehen postuan eta hura izango da hurrengo arerioa. Irabaziz gero liga erdia irabazita legoke.

AINTZANE AGIRRE

Jokaldi politak ikusi ziren Intxaurtxuetan zapatuan.

Txirrindularitza

AINTZANE AGIRRE

IBAN CABALLERO BIGARREN LABEGARAIETAN

Labegaraietako 43. edizioa jokatu zen atzo. Kadete mailako lasterketa izan zen eta 107 txirrindularik parte hartu zuten lasterketan. Kilometro baten faltan Harriet Urteagak tropel nagusitik ihes egin da, irabazi egin zuen. Atzetik, Iban Caballero bergararra hiru segundora heldu zen. Tropel nagusiak segundo bat gehiago behar izan zuen.

Asegarce eta Aspe enpresetan urteak pasatu eta gero, Frontis enpresarekin hasi da jokatzen Jorge Nagore duela hilabete eta erdi. Denbora honetan bi final jokatu ditu, eta bigarrena, atzo Arrasaten jokatutakoa, Alustizari irabazi zion. Oso pozik dago enpresa berrian eta arduradunak lan polita egiten dabiltzala uste du. Arrasateko frontoiari ere hitz ederrak bota dizkio, eta beti lau t'erdiko pilotari kontsideratu badute ere, bikoteka jokatzea oso gustuko duela aitortu digu.

JORGE NAGORE | FRONTIS ENPRESAKO PILOTARIA

"Frontisen oso pozik nago gauzak nola irteten ari diren ikusita"

AINTZANE AGIRRE

Alaitsu egin zigun harrera Nagorek Arrasateko Uarkape frontoiko aldageletan.

Jokin Etxebarria

Asegarce eta Aspe enpresetan ibili eta gero, Frontisen lehen denboraldia nolako izaten ari da?

Aldaketa nahiko handia izan dela ezin da ukatu. Frontisen maila handiko pilotariak daude, baina ezin daiteke beste bi enpresekin konparatu.

Egia esan, ezin dezaket gauza handirik esan, bertan hilabete eta erdi daramadalako. Baina, oso pozik nago gauzak nola irteten ari diren ikusita.

Ezin zara kexatu: hilabete eta erdian bi final jokatu eta bat irabazi.

Bai egia da. Oso pozik nago, denbora gutxian bi final jokatzea lortu dudalako. Errioxan jokatu nuen lehen finala eta ezin izan nuen irabazi. Baina gaurkoa, asko kostatu arren, azkenean irabaztea lortu dut, eta oso pozik nago. Alustizak partidu oso ona jokatu du, eta ni ez naiz oso eroso sentitu, baina azkenean irabaztea lortu dut. Partidu oso gogorra jokatu behar izan dut, eta jokoarekin pozik ez banago ere, emaitzarekin ezin naiz kexatu.

Zein ezberdintasun nabaritu duzu enpresa erraldoi hauetatik Frontisera?

Asegarce eta Aspe finkatutako enpresak dira. Gainera, telebista dago horien atzetik, eta hau oso garrantzitsua da negozio mota hauetarako. Frontis enpresa berria da, baina enpresa daramatenak lan ona egiten dabiltza. Gorantz joan nahi duen enpresa da eta denborarekin telebista bat ere aurkituko dute; hau lortuz gero, gauzak asko aldatuko dira.

Zer iruditzen zaizu Arrasateko Uarkape frontoia?

Uarkape frontoi handia da. Asko eskatzen duen frontoia da, lurra oso azkarra daukalako, baina frontoi gisa, gaur egun pilotan jokatzeko dagoen frontoi onenetarikoa da, bai pilotariarendako eta baita ikuslearendako ere. Kategoria eta edukiera handiko frontoia da, eta bertan maila handiko pilota partiduak ikus litezke.

Lau t'erdia da frontoian gustukuen duzun distantzia?

Lau t'erdian oso eroso sentitzen naiz, nire joko motara ondo egokitzen den distantzia delako. Beti esan izan da ni distantzia honetako jokalaria naizela, bertan lortu ditudalako nire garaipenik handienak. Final asko jokatu ditut eta hirutan izan naiz irabazle. Baina, bikoteka jokatzen ere oso eroso sentitu izan naiz beti. Egia da bikoteka jokatzeko modu asko daudela, baina ni beti izan naiz oso erasokorra, eta bikoteka jokatzeko joko mota hori oso polita izaten da.

Familian futbolari bat duzue, zu pilotaria. Kirola familian oso sakon sartutako gauza da?

Bai, zorte handia izan dugu familian. Txikitatik gustatu izan zaigu kirola egitea, eta horra gora igotzeko zorte pitin bat izan dugu; oso pozik gaude lortutakoarekin.

Zer iritzi duzu pilotarien belaunaldi berriari buruz?

Kirol guztietan jende berria irtetea derrigorrezkoa da. Pilotan, azken urteetan, asko irten dira eta kalitate handikoak, gainera. Eta polita da jende gaztea beteranoekin nahasten joaten ikustea.

Zein gomendio emango zenioke pilotaria izan nahi duen gazte bati?

Lana gogor egitea eta asko entrenatzea. Baina horretaz gain, kirola maitatzea. Nire ustez behar beharrezkoa da azken hau.

"Frontis enpresa berria da, baina enpresa daramatenak oso lan ona egiten dabiltza"

Nagorek 22-18 irabazi zion Alustizari Gipuzkoako lau t'erdiko irekia

Oso final polita izan zen. Uarkapera gerturatutako 150 pertsonek pilotaz gozatu egin zuten, eta txalo zaparrada handiak entzun zituzten bi pilotariek. Hasiera nahiko berdindua izan zen. Bosnako berdinketatik aurrera hartu zuen abantaila Nagorek, baina partidu erdialdean beherakada bat izan zuen Irurtzungo pilotariak eta Alustizak markagailuan gerturatzeko aprobetxatu zuen. Hortik eta amaierara oso parekatuak ibili ziren. Azken tantoetara abantaila txiki batekin heldu zen Irurtzungoa eta zabalera pilota nahikok ihes egin bazien ere, Alustizaren huts batzuk aprobetxatu zituen abantaila amaiera arte mantentzeko.

Bestalde, hirugarren postuan Ariznabarreta sailkatu zen, beste partidu polit batetan Antxiari 22-18 irabazi eta gero.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

• Telleria Baserriko Jaiaren barruan lau keramika erakusketa zabaldu dituzte geurean | 25
• Ibarreko ikastetxeetako zortzi abesbatza batu ziren zapatuan Arrasateko topaketan | 26

Bergarako idazle eskolako 29 idazlek 'L. Luma Berrien Eleak' aldizkaria aurkeztu dute | 25

DANBAKA DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

DISKO GRABAKETA | ARRASATEKO SHOT! ESTUDIOETAN GRABATU DUTE DISKOA, HAMABOST EGUNETAN. ASTEON EGINGO DITUZTE AZKEN UKITUAK

Sharon Stoner taldeak amaitu du Danbakari esker grabatutako diskoa

Hamaika kantekin osatu dute diskoa. Horietako lau berriak dira. Guztiak euskaraz abestu dituzte

Kantu gogorrak dira gehienak, baina melodikoren bat edo beste ere tartekatu dute diskoan

Marijo Deogracias

Izenik ez dauka oraindik, baina bai hamaika kanta. Horietako zazpi Danbaka Debagoieneko I. Musika lehiaketari esker ezagutu genituenak. Beste laurak, berri-berriak; diskorako sortuak. Ahopean esan digutenez, "sorpresa izango dira. Diskoa atera arte sorpresa izaten jarraituko dute eta tartean zuzenekorik egingo bagenu ere, ez ditugu joko diskoan argitaratu arte".

Itxaron egin beharko dugu beraz, Sharon Stoner oñatiar hirukoteak Shot! grabaketa estudioetan egin berri duen lanaz gozatzeko. Hala ere, "mutil majoak" dira, Shot!-eko Iñakiren iritziz. Sinesten dugu eta itxaron egingo dugu diskoetxeren batek eskaintzarik onena egiten dien arte.

Horixe izango da Iñigo, Mikel eta Egoitzen hurrengo pausoa. Asteon amaituko dute Danbaka lehiaketari esker grabatu duten diskoa. Arrasateko Shot! estudioan harrapatu ditugu azken ukituak egiten, Iñaki Bengoa alboan dutela. Aste Santuan egin zituzten grabaketak eta orain masterizazioa egingo dute; gero diskoetxe bila hasiko direla esan digu Oñatiko hirukoak.

IZENIK BAKO DISKOA

Oraindik ez diote grabaketari izenik jarri. Ez dute horretarako astirik hartu. Horrela adierazi digute Sharon Stoner taldekoek. "Lehentasuna eman diogu diskoaren grabaketari eta ez dugu izenbururik asmatzeko denborarik hartu. Asmatuko dugu zer edo zer; hartuko dugu horretarako astia ere, baina lehenengo eta behin diskoa amaitu nahi dugu".

Diskoaren grabaketa zela eta, kontzerturik ere ez dute egin. "Danbaka irabazi ostean kontzertuetarako dei asko jaso ditugu. Leku askotan atera ginelakoedo, eskaintza mordoa izan ditugu. Hala ere, erabakia hartuta geneukan: diskoa amaitu arte ez genuela kontzertu gehiago egingo. Hortaz, eskaintza oso gutxi onartu ditugu, konpromiso batzuk. Hala ere, guzti-guztiei esan diegu diskoa amaitu ostean gura dituzten kontzertu guztiak egingo ditugula". Hurrengo emanaldia Bergarako jaietan izango da.

> Hamabost egunetan grabatu dituzte diskoko hamaika abestiak
>
> Diskoa udan ateratzea nahiko lukete Iñigok, Egoitzek eta Mikelek

SORPRESARIK ERE BADAGO

Kontzertu horietan sorpresak egongo dira. 0Batez ere diskoa atera baldin badute ordurako. Kontua da disko berrian lau kanta berri daudela eta horiek diskoa atera bitartean zuzenean ez dituztela joko; ostean, euren zuzenekoetara gehituko dituzte. "Eta bat baino gehiago harrituko

MARIJO DEOGRACIAS

Iñigo Ibarrondo, baxu jotzailea izateaz gainera, Sharon Stoner taldeko abeslaria ere bada.

Sharon Stonerren diskoa "gogorra eta zuzena" da. Baina kanta melodikoak ere baditu

Hamaika kantaz osaturiko diskoa grabatu du taldeak; guztiak euskaraz. "Beti abestu izan dugu euskaraz; horrela egiten dugu berba". Abesti nahiko gogorrak direla aitortu digute: "Gogorrak eta oso zuzenak dira gehienak; hala ere, badira ahotsari garrantzi gehiago ematen diegun abestiak ere, melodikoagoak direnak; eta pare bat lasaiak dira, gitarra suabeagoak erabili ditugu. Baina, orokorrean, indartsua da eta tarteka melodiak daude, hartara diskoa osorik entzuten duenak aspertzeko astirik ez dezan izan".

Lau kanta berrirekin eta Danbakan entzundako zazpi abestirekin osatu dute diskoa

Hamaika kanta dira guztira Sharon Stoner taldearen diskoan batu dituztenak. Horietako zazpi Danbaka musika lehiaketan jo zituzten, bai eta handik kanpo egindako kontzertuetan ere. Horiez gainera, beste lau kanta sortu dituzte diskorako eta horiekin guztiekin osatu dute euren lehenengoko kanta bilduma (CD osoa, aurretik maketa bat bazuten eta). Aurretik bederatzi kanta dituzte oñatiarrek: *Ihesi, Rocco Never dies, John Allen, Paranoid, Itsaso bat, Suzko neska, Fur Marries, Azken bidaia* eta *Airheads*.

Triki-stoner kontzertua Bergarako Mendekoste jaietako egubakoitzean

Bergarako Mendekoste jaiak hasiko dira datorren astean eta han ikusiko ditugu Sharon Stonerrekoak taula gainean bueltan. Disko grabaketaren osteko lehenengo kontzertua izango da. Triki-stoner deitu dute oñatiarrek kontzertua, Imuntzo eta Belokirekin arituko direlako.

Kontzertua maiatzaren 13an, egubakoitza, izango da, Bideberrin. Sharon Stoner, Imuntzo eta Beloki, Harrikada eta Deskontrol taldeak arituko dira gauerdian hasiko den emanaldian.

ENEKO AZKARATE

Nahasketak eta azken ukituak egiten Egoitz eta Mikel.

dugula badakigu. Oraingoz entsegu lokalaren bueltan batzen diren lagunek esandakoak baino ez ditugu entzun, baina nahikoa izan da harritu egin direla jakiteko. Kantuetariko bat gure estilotik nahiko aldentzen da, baina entzun ere denetik egiten dugunez, jo ere bai", diote Stonerrekoek. Iñigok, gitarra jotzaile eta abeslariak, bere kabuz egiten ditu abestiak, "bakarrik, akustiko eran" dio, eta Egoitzek, bateria jotzaileak, horietako bat moldagarria zela eta "grabatzea erabaki genuen" azaldu digu. "Baina ez dugu gehiago esango diskoa atera arte".

Diskoetxe bila hasiko dira oñatiarrak eskaintzarik onena lortzeko asmoz

Kanta berrien artean "sorpresarik ere badago. Harritu egingo da bat baino gehiago"

DISKOETXE BILA DIHARDU HIRUKOAK

Zurrumurruak zurrumurru, Sharon Stonerren disko berria hainbat diskoetxek jasoko dute.

"Gure asmoa eurek egingo dituzten eskaintzak entzutea da eta, horren arabera, gehien komeni zaiguna onartuko dugu. Gaizki aterako balitz, geuk aterako genuke diskoa kalera. Kontua da diskoetxeei lana eginda eskainiko diegula eta uste dugu horrek erraztu egingo duela baiezkoa ematea. Horrela ez bada, ba... tabernetan-eta jarriko genituzke saltzen".

Diskoa noizko izatea espero duten galdetuta zera erantzun digute: "Udarako gustatuko litzaiguke kalean izatea, baina badakigu diskoetxeentzako beranduegi ari garela. Dagoeneko gertu izango dituzte udan ateratzeko kanta bildumak. Hortaz, baliteke Durangoko Disko Azokara arte itxaron behar izatea. Ez genuke nahi hainbeste itxarotea, kontzertuetan ere lau kanta gutxiago joko genituzkeelako, baina... Ikusiko dugu zerk irtetzen duen. Saiatu barik ez gara geratuko".

Kontuak kontu, Sharon Stoner Oñatiko hirukoak, Iñigo Ibarrondo baxu jotzailea eta ahotsak, Mikel Zarketa gitarra jotzaileak eta Egoitz Olalde bateria jotzaileak amaitu dute euren lehenengo bilduma. Laster batean izango dugu diskoetxeetan Oñatiko taldearen lana erosteko aukera.

ENEKO AZKARATE

Iñigo Shot! estudioetako nahasketa mahaian.

Danbaka musika lehiaketa 2006an egingo da bigarrenez

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa 2006an egingo da. Antolatzaileek adierazi dutenez, "Danbaka bi urtetik behin egitea adostu dugu bi arrazoiengatik. Batetik, lehiaketak hilabete asko hartzen dituelako eta urtero eginez gero, marka eta ekimena erretzeko arriskua egongo litzatekeelako. Bestetik, eskualde bateko lehiaketa dela kontuan izanda, urte batetik bestera ez da aurreikusten talde berri asko sortuko direnik, eta ondorioz, ez da berritasunerako aukerarik egongo". Beraz, 2006an izango da Danbaka lehiaketa bigarrenez. Lehenengo edizioan Debagoieneko 44 talde aurkeztu ziren lehiaketara eta hasierako aukeraketaren ondoren, 20 talde aritu ziren zuzenean Elgetako Espaloia kafe antzokian. Zuzeneko horien arabera aukeratu zituzten epaimahaikideek finalerako sailkatu ziren hiru taldeak: Arrasateko Muted eta Oñatiko Sharon Stoner eta Potemkin taldeak.

Irabazleek Shot! estudioetan diskoa grabatzeko aukera irabazi zuten. Arrasateko Enboskada taldeak, bestalde, publikoaren saria eskuratu zuen. Horri esker, Gasteizko Carrion musika tresna dendan 1.000 euroko gastua egitea eta bateria bat irabazi zuten.

Danbaka lehiaketa zuzeneko kontzertuak izan ziren. Guztira bost emanaldi egin ziren Espaloian, launa talde bakoitzean, eta guztiek ere harrera bikaina izan zuten entzuleen aldetik. Antolatzaileak gustura geratu ziren lehiaketak izan zuen harrerarekin eta hori dela eta, lehenengoari jarraipena egitea erabaki dute. Datorren urteko lehiaketa nola izango den erabaki barik dago oraingoz. Lehenengoaren esperientzia ikusita, segurutik, berdintsu samar jokatuko dute antolatzaileek, baina ikusteko dago, lehiaketara aurkezten diren talde kopuruaren arabera ere badago-eta. Hasi zaitezte prestatzen, atoan da hori eta!

Shot! estudioetan grabatu dute kanta bilduma oñatiarrek

Arrasateko Shot! estudioetan diskoa grabatzeko aukera irabazi zuten Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketari esker, eta han izan dute Iñaki Bengoa, estudioetako arduraduna, lan dena ondo atera dadin jo eta su.

"Mutil jatorrak dira" aitortu digu Iñakik, "Oñatikoak". Hori baino ez diogu atera lanari buruz. Ez digu ezer gehiagorik esan gura izan. Arrasatearrak ondo gordetzen ditu sekretuak eta orain ere, diskoa atera bitartean, ahoa itxita izango duela dirudi.

Grabaketaren gainekoak, beraz, oñatiar 'jatorrek' kontatu dizkigute. Grabaketa prozesua ezagutzen zuten, lehen ere maketa bat grabatu zuten eta, Eibarko Legarreko Musika Elkartearen estudioan. Hala ere, "orain estudio hobe baten aritu gara eta igarri dugu. Kalitatea gehiago zaindu da, soinu kalitatea eta tomak ere gehiagotan errepikatu ditugu" adierazi digute taldekideek. "Martxa onean lana egin dugu –gaineratu digute–. Bi-hiru goiz eta arratsaldez etorri gara grabaketa estudiora eta azkeneko bi asteetan txandaka" azaldu digute.

Aste honetan masterizazioari dagozkion azken ukituak egingo dituzte, eta gertu izango dute euren lehenengo diskoa. Orduan ekingo diote diskoetxea bilatzeari.

Bitartean, zuzenekoetan gozatu ahal izango dugu Sharon Stoner taldearen musikaz. Lehenengo emanaldia Bergarako jaietan.

HIPNOSI ERAKUSTALDIA | ARNO MAISUAREN SAIOAK DENETARIKO IRITZIAK ERAGIN ZITUEN ELGETAN

Ikusitakoa sinistu ala ez, zalantza nagusitu zen batutako ikusleen artean

13 ikuslek, gehienak herritarrak, eskaini zuten euren burua trantze hipnotikoan parte hartzeko

Hasierako atal komikoaren ondotik Arnó maisuak erregresio esperimentazioak egin zituen

Larraitz Zeberio

Bariku gauean hiru orduko hipnosi erakustaldia egin zuen Arnó maisuak Elgetako Espaloian. Bertaratutako lagunen artean, denetarik: hipnosi zaleak, kuxkuxeroak zein eszeptikoak.

Agertoki gainean hamabi aulki zituen prest Arnó maisuak. Laster jakinarazi zuen, ordea, trantze hipnotikoan parte hartzeko norbera bere borondatez igoko zela agertokira. Ez zela inor behartuko. Esan eta izan. Laster lortu zituen Arnó maisuak erakustaldirako behar adina boluntario, gehienak elgetarrak.

HASIERAN BARRE

Erakustaldiaren lehenengo zatia izan zen luzeena eta dibertigarriena. Boluntarioak arrazoirik gabe barre egiten ikusi genituen, hipnotizatzailearen aginduetara izen abizenak ahazten, egunkari zatiak 50 euroko billeteak izango balira legez lurretik jasotzen, zapata pare batekin haur jolasak egiten. Betaurreko batzuk jantzi eta publikoa biluzik ere ikusi zuten.

HIPNOSIARI EZ

Arnó maisuak ez zuen hamabi boluntarioak trantze hipnotikoan sartzea lortu. Hiru herritarrek agertokitik jaisteko baimena eskatu zuten hipnotizatzailearen hitzek eurengan inongo eraginik ez zutela azalduz. "Noski, itzul zaitezkete zuen eserlekuetara", esan zuen Arnó maisuak, "pertsona batzuk ez dira aurrera egiteko beharrezkoa zaidan hipnosi mailara iristen. Arrazoi ezberdinengatik euren adimenak erresistentziak jartzen ditu".

Gauzak horrela, bederatzi pertsonarekin jarraitu zuen bere erakustaldia hipnotizatzaileak. Birekin bereziki. "Beraiek lortu dute hipnosi mailarik altuena. Euren burua hipnotizatzen utzi didate". Nahiz eta piztutako zigarroak euren eskua erre, ezin zuten lurrera bota. Lurrera itsatsita zeudela eta mugitu ezinik ere gelditu ziren biak.

ERREGRESIO SAIOAK

Erakustaldiaren bigarren atalean erregresio saio pare bat egin zituen hipnotizatzaileak. Aurreko bizitza batean boluntarioak non eta nola bizi ziren jakitea zen helburua. Bizipen gogorrak entzun genituen. Amaieran, denetariko iritziak entzun ziren Elgetan.



AINTZANE AGIRRE

Trantze hipnotikoan muskuluen tentsioa oso handia ei da. Gazte honek eutsi egin zion maisuaren pisuari.

ROCK KONTZERTUA | **SEI URTE ETA NABARI**

Nabari taldeak ireki zuen zapatu gauean Bergarako gaztetxeko kontzertua. 23:00etan ekin zion eta *Metal hotsak* maketako abestiak jo zituzten berriztarrek. Horrez gain, eta askoren gozamenerako, Judas Prest taldearen *Breaking The Law* abestia ere jo zuen laukoteak. Horren ondotik Sei Urte taldea igo zen eszenatokira –berriztarrak hauek ere–. *Ekiozu* diskoa aurkeztera hurbildu ziren Bergarara; izan ere, kaleratu berri dute eta han eta hemen dabiltza diskoa aurkezten. I.S.

LITERATURA | **'L. LUMA BERRIEN ELEAK' ALDIZKARIA AURKEZTU DUTE**

UNEDeko idazle eskolako ikasleek *L. Luma berrien Eleak* aldizkariaren bigarren alea aurkeztu zuten zapatuan, Bergaran. Bergarako idazle eskolan Euskal Herri osoko ikasleak batzen dira zapaturo. 25 urtetik gorakoak dira gehienak eta idazle gisa ezagun ez badira ere, gehienek jaso dute sariren bat eta baita lanak argitaratu ere aldizkarietan. Zapatuan aurkeztutako alean 29 idazle berrik hartu dute parte; 64 orri ditu eta hainbat sail: iritzi artikuluak, narrazioak, antzerkia eta liburu eta disko iruzkinak, besteak beste. | M.B.

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupo•taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

ZERAMIKA | TELLERIA BASERRIKO JAIA IZENAREKIN, ZERAMIKAGILEEN BIGARREN TOPAKETA EGIN DUTE

Puntako zeramikagileen lanak lau erakusketatan

Arrasatera mugatu barik ibarrera zabaldu nahi izan dituzte aurten erakusketok: hiru herritan daude

Herbeheretako, Gaztela-Mantxako, Valentziako eta Euskal Herriko artisten lanak daude ikusgai

M.B.

Munduko zeramikagile onenetakoak gurean ditugu eguenetik, Ceramikarte taldeak gonbidatuta. Arrasateko Telleria baserriaren jaia izenarekin –Arrasaten Telleria baserrian 2002ko ekainean aurkitutako teileriari ohore eginez jarritako izena–, zeramikagileen bigarren topaketa antolatu dute, eta egubakoitzean aurkeztu zuten Oñatiko kultura-etxean. Han izan ziren aurtengo protagonista nagusiak: NVK (Nederlandse Vacgroep Keramisten) Herbeheretako zeramikagile taldeko ordezkariak –aurtengo eskaintza indartsuena–, Gaztela-Mantxako Ruben Navarro, Valentziako Rafaela Pareja eta Samuel Bayarri eta Reyes Navarro, euskalduna. Horien guztien lanak ikusteko aukera dago maiatzaren 8ra bitartean, lau erakusketatan banatuta.

> Aurtengo eskaintza indartsuena Herbeheretako NVK taldea da

DEBAGOIEN OSORA ZABALDU DITUZTE ERAKUSKETAK

Iaz egindako lehenengoarekin alderatuz, baditu berritasunak aurtengo topaketak. Iaz Arrasatera mugatu ziren ekitaldi guztiak, baina aurten, ibarreko ikuspegia eman nahi izan diote, eta Arrasatez gain, Eskoriatzara eta Oñatira ere zabaldu dituzte erakusketak.

Erakusketez gain, zeramikaren gaineko dokumental zikloa ere egon da asteburuan. Egubakoitzean Ossekiei (Herbehereak) izenekoa aurkeztu zuen NVK taldeak Oñatin. Zapatuan Frantziako, Austriako eta Espainiako bana eman zituzten Arrasaten.

AINTZANE AGIRRE

Oñatiko kultura-etxean Herbeheretako NVK taldearen 16 lan daude ikusgai.

Lau erakusketa, maiatzaren 8ra bitartean

Antolatzaileek ikuspegi zabalagoa eman nahi izan diete topaketei eta horretarako Debagoienera zabaldu dituzte erakusketak. Lau daude: Herbeheretako Nederlandse Vacgroep Keramisten taldearena, Oñatiko kultura-etxean dago ikusgai: astegunetan, 18:00-20:30, eta asteburu eta jai egunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30.

Arrasaten bi daude. Bata, Ruben Navarroren (Gaztela-Mantxa) *Impresiones calcinadas* izenekoa, Harresi aretoan: astegunetan, 18:00-20:30 eta asteburu eta jai egunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30. Bestea, Reyes Guillenen (Euskal Herria) *Eraikuntzak* izenekoa da eta Monterron jauregian dago ikusgai aurrekoaren ordutegi berean.

Laugarren erakusketa Eskoriatzako Ibarraundi museoan dago. Rafaela Pareja eta Samuel Bayarriren (Valentzia) *Esculturas de luz*, hain zuzen ere. Ordutegia da: astegunetan, 16:00-20:00 eta asteburu eta jai egunetan, 12:00-14:00 eta 16:00-20:00.

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ARRASATE | DEBAGOIENEKO ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN XVIII. TOPAKETA

Adin guztietako zortzi abesbatza eta 260 abeslari aurtengoan

Larraitz Zeberio

Arratsaldeko 17:30etarako jendez mukuru bete zen Arrasateko Uarkape pilotalekua. Lehenengo lerroetan, nola ez, Debagoieneko eskola arteko abesbatzen topaketan parte hartzekoak ziren 260 koristak. Kilometroak 05 antolatuko dituen Arizmendi ikastolaren ekimenez, Harreman gobernuz kanpoko erakundeari eman zitzaion sarrerekin batutako dirua.

TXIKIAK LEHENENGO

Ekitaldiari hasiera emateko haur hezkuntzako 54 abeslari entzun genituen. Kantuan egiteaz gain gorputza ere mugitu zuten ausarki andereñoaren aginduetara. Ondo ikasitako mugimenduak, alajaina!

Ondotik, eta adinka sailkatuta, gainerako zazpi abesbatzek eman zioten jarraipena ekitaldiari. Ikasleak ez ezik irakasleak ere kantuan aritu ziren. Arizmendi Ikastolako langileak aurten ez dira antolakuntza lanetan bakarrik ibili.

ARIZMENDI IKASTOLAKO ABESBATZA. Primeran aritu ziren Arizmendi ikastolako irakasle eta langileak. Aurten taldea osatu eta abestu egin dute Rakel Murgiondoren zuzendaritzapean. Oso festazale ikusi genituen.

OLARTE GUNEA (ARIZMENDI). Sei urteko gazte hauek haur hezkuntzakoak dira. 54 bildu zituen Maider Idigoras zuzendariak abesbatza osatzeko. *Muxu Truk* eta *Guk Euskaraz* abestu zituzten txintxo eta fundamentuz.



SAN VIATOR TXIKI GUNEA (ARIZMENDI). *Airez aire* eta *Gailurrez gailur* kantuak eskaini zituzten Amaia Aspiazuren zuzendaritzapean 33 gazte hauek. Lau soinujole izan zituzten lagun. Hauek ere oso ondo aritu ziren.

SAN MARTIN HERRI ESKOLA, ARAMAIO. 15 abeslari etorri ziren Aramaiotik partitura eta guzti. Arantza Uriarte aritu zen zuzendari lanetan eta *Mantxa Pio* zein *Uso zuria* abestu zituzten ozen eta txukun.

TXANTXIKU IKASTOLA, OÑATI. Iñaki Barrenaren zuzendaritzapean aritu ziren 30 txantxikuar gazte. *Umorez* eta *Kantari Kantari-Pozik etorri gerade* eskaini zituzten biolina, tronboia, gitarra eta flautaren laguntzarekin.

BERRIZ INSTITUTOA. Bigarren hezkuntzako lehen taldea Berrizkoa izan zen. Xalbadorrek hil aurretik idatzitako bertso batekin hasi zen taldea. Ondotik *Xalbadorren heriotza* eta *Basatotzak* eskaini zituzten.

ALMEN, SAN VIATOR ETA FERIXALEKUA (ARIZMENDI). 44 abeslari izan zituen bere aginduetara Rakel Murgiondok. Jazz estiloko kantu bat eskaini zuten, *The Lion Sleeps Tonight*. Ondotik, *Iluna eta Argi Berria*.

• HORRELA ESAN DIGUTE PROTAGONISTEK

MAITANE ETA ALAZNE | BERRIZ INSTITUTUA

Hiru urte daramatzate abesten. "Kantuak gustatzen zaizkigu eta lagun artean aritzea ere bai".

PATXI, DANEL ETA OIHAN | OLARTE GUNEA (ARIZMENDI)

Hirukote hau kantuan hasi berria da. Patxiri ez zaio gehiegi gustatzen baina Danelek eta Oihanek berriz itzuliko liratekeela esan digute.

GARAZI, MAIALEN ETA ANE | ALMEN ETA SAN VIATOR (ARIZMENDI)

"Lehenengo aldia da topaketa honetara etortzen garela. Kantuak ikastea oso polita da. Astean behin elkartzen gara entseatzeko. Kantuan jarraituko dugu".



BEÑAT ETA JON ANDER | ALMEN (ARIZMENDI)

Prestatu duten jazz moldaketa oso gustukoa dute. Laster gainera Beñatek Kilometroen kantua grabatuko du.

LAN ESKAINTZA

BERGARAN
Hortz klinika baterako
LAGUNTZAILEA
behar da.

Eskatzen da:
Euskara
•
Informatika jakitea
•
Bergarakoa izatea

Interesatuok deitu:
652 71 77 70 telefonora

Ikastaroa eta laguntza zerbitzua, Goiena.net-eko blogariendako

Handitzen doa www.goiena.net-eko blogosfera, blog pertsonal zein komertzialekin, eta berriek laguntza jasoko dute

Leire Kortabarria

Goienako blog komunitatea hazten ari da, eta bere bloga egin nahi duenari zenbait erraztasun ematen dio Goienak.

Bloga erabiltzen ikastea oso erraza da, eta beldur hori kentzen laguntzeko, ikastaroak antolatu ditu Goienako Telematika sailak. Astelehen edo martitzen arratsaldeetan izango dira saioak. Hiru edo lau laguneko taldetan ematen da ikastaroa, Bergaran. Blog pertsonala zein komertziala duena joan daiteke ikastarora. Ikastaro osteko laguntza ere eskaintzen du Goienak; horretarako, posta-zerrenda bat osatu dute. Han, norberak bere zalantzak, galderak, albisteak... kaleratu ditzake eta beste blogariekin berba egin.

BI LAGUN BERRI

Goienako blogosferan bi lagun berri daude: Eli Laztanguren kazetari eibartarra, *Kixmi* bere blogarekin (*www.goiena.net/blogak/kixmi*), eta Edorta Arana irakasle arrasatearra, *Hamaika ikus-entzuteko jaioak* izeneko bitakorarekin (*www.goiena.net/blogak/hamaika*). Eli Laztangurenek "blogterapia" egiteko "ikerketa saio" bezala definitzen du bere bitakora. Edorta Aranak telebistarekiko "kontrolaezinezko zaletasuna" duela onartzen du, eta hura du hizpide sarri askotan.

Horiez gain, enpresek bloga egiteko aukera ematen dute, eta horien gaineko informazioa banatzen ari da Goienako komertzial bat. Bergarako Arregi aroztegiak eta Eibarko Ohiak dendak badute eurena.

Horrenbestez, orain hamar bitakorak osatzen dute Goienako blogosfera. Bloga eskatzeko, *webmaster@goiena.com* helbidera idatzi behar da.

Labur

Epi Pérez antzuolarrak bakarkako lehen erakusketa du Gasteizen

Epi Pérez margolari antzuolarrak 36 lanen erakusketa zabaldu du Gasteizko Ciudad de Vitoria hoteleko Fournier aretoan. Bakarkako lehen erakusketa du. Estilo figuratiboa da berea, eta paisaiak ditu gai gogokoena; Antzuolako paisaiak ere badaude erakusketa horretan.

Paisaiak dira baita Mireia Agirrebeña eibartarraren erakusketako protagonistak. Egile horrek Bergaran, Nahikari tabernan, eskegiko ditu bere lanak hilaren 6tik aurrera.

Kalean da 'Menditik itsasora', Juan Carlos Irizarren disko berria

Menditik itsasora diskoa aurkeztu berri du Juan Carlos Irizar konposatzaile oñatiarrak, bi arlo horietako pertsona eta erakundeak omentzeko: Dina Bilbao, Andres Espinosa, Cesar Perez de Tudela, Miriam Garcia, Julio Villar eta beste batzuk.

San Juanetako kartel lehiaketa deitu dute, 750 euroko sariarekin

Arrasateko San Juan jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udal Kultura Sailak. Debagoienean bizi den edo hemen erroldatuta dagoen edozeinendako lehiaketa da. Lanen gutxieneko neurriak izan behar du 28 x 21 cm, jaietako egitarauaren azalean erabiliko delako; eta derrigorrezko testua, *2005 San Juan jaiak Arrasate*. Teknika norberaren aukerakoa izango da. 750 euroko saria emango dute. Udaletxeko kultura sailean entregatu behar dira lanak maiatzaren 20a baino lehen.

Hitzorduak

CORAZON DE ENCINA ELKARTEA BERE KULTURA ASTEA OSPATZEN DABIL | Lehiaketak, folklore emanaldiak, afariak, hitzaldiak... antolatu dituzte

Corazon de Encina extremadurar elkarteak bere Kultura Astea hasi zuen atzo, domeka, Erregina eta Ohorezko Damak aukeratuz. Datorren aste osoan, egunero, lehiaketak eta bideo emanaldiak izango dira euren egoitzan. Egubakoitzean, hilak 6, Extremadurako ibilbide turistikoen gaineko hitzaldia, Los Chambras taldearen emanaldia eta saihesk-jana izango dituzte.

Zapatuan, hilak 7, dastatzea, folklore jaialdia, afaria eta dantzaldia izango dituzte, eta domekan, maiatzak 8, bukatzeko, Extremadurako musika emanaldiak eta lehiaketetako sari banaketak.

ZINEMA |

• *El hundimiento* filma emango dute Arrasaten

Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean. Gaur ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *Million dollar baby* filma emango dute gaur, astelehena

Oñatiko kultura-etxeko zinema aretoan emango dute film hori, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da.

• *Master and commander* filmaren emanaldia Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia kafe antzokian, 21:30ean.

• *El regreso* filma emango dute Oñatin, zineklubean

Eguenean, hilak 5, emango dute film hori Oñatiko kultura-etxean, 20:00etan. Film honekin bukatuko da aurtengo zineklub denboraldia.

• *Hermanos* filma izango da Arrasaten, zineklub saioan

Eguenean, hilak 5, emango dute film hori. Amaia antzokian izango da, 20:30ean.

MUSIKA |

• Los Suaves taldearen kontzerturako sarrerak

Los Suaves taldeak Bergarako Jam aretoan joko du hilaren 6an, egubakoitza, eta sarrerak salgai daude 15 eurotan; egunean bertan erosita, 18 euro. Beste talde batek ere joko du.

DEIAK |

• Hartzaren gaineko hitzaldia egingo dute Aretxabaletan

Hartzaren gaineko hitzaldia egingo du Miguel Mari Elosegik eguenean, maiatzak 5, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendi euskara elkartearen eskutik.

ERAKUSKETAK |

• Akonkaguaren gaineko argazkiak Eskoriatzan

Akonkaguaren gaineko argazki erakusketa ipiniko du Aitzorrotz kultura elkarteak bihar, martitzena, Inkernu tabernan. Hilaren 17ra bitartean dago bisitatzeko aukera.

• Pello Alberdi margolari elgetarraren lanak

Arrasaten du erakusketa, Arregi markoztatze dendan (Maalako Errabala, 8). Hamabost bat lanek osatzen dute bilduma hori. Maiatzaren 13ra bitartean dago zabalik.

LEHIAKETAK |

• *Emakumeak eta Lana* argazki lehiaketa Arrasaten

Emakumeak eta Lana gaiaren inguruko argazki lehiaketa deitu du Emakume Txokoak, maiatzaren 1aren inguruan. Lanak eramateko mugaeguna maiatzaren 13a da, Udaleko Emakume Sailean. 300, 250 eta 150 euroko sari bana emango dute.

• Eskoriatzako jaietako irudi lehiaketa deitu dute

San Pedro jaietako irudia aukeratzeko lehiaketa deitu du Udaleko Kultura Sailak. Edozeinek parte har dezake 21 x 10 zentimetroko kartelekin. Derrigorreko testua honakoa da: *2005eko San Pedro jaiak Eskoriatza. Ekainak 28, 29 eta 30, uztailak 1.* Lanak udaletxean edo kultura-etxean entregatu behar dira maiatzaren 20a baino lehen. Irabazleari 300 euro emango dizkiote.

• VI. Legazpi Hiria argazki lehiaketa deitu dute

Siderurgia, ondare industriala gaitzat duten argazkiekin parte hartu beharko da. Lanak Legazpiko 4 Posta Leihatilara bidali behar dira maiatzaren 6ra bitartean. 660 euro banatuko dituzte saritan kategoria bakoitzean. Argizaiola lehiaketarako sailkatzeko baliagarria da sariketa hau.

• 15. Portugalete Uri Urena ipuin lehiaketa, zabalik

16-30 urte bitarteko edozeinek parte har dezake. Gaia librea da. Lanak Portugaleteko udaletxera bidali behar dira irailaren 26ra bitartean. Honako sariak banatuko dituzte: 1.700 euro lehenengo sailkatuari, 1.000 bigarrenari eta 550 hirugarrenari. 21 urtetik beherako egileari 350 euroko saria aukeran emango du epaimahaiak.

Zorion agurrak

ARRASATE
Eneida Felix
Apirilaren 28an, 12 urte. Zorionak! Aitaren eta amaren partetik.

ARRASATE
Nerea Atxa
Apirilaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Lankideak. Ez ahaztu gurekin.

ARRASATE
Sergio Azkarate
Apirilaren 29an, 30 urte. Zorionak, *pollito-txipiroi*! Lankideak.

ARRASATE
Jone Heriz
Maiatzaren 3an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Aita, ama eta Iker.

ARRASATE
Danel Arrillaga
Maiatzaren 7an, urtebete. Zorionak! Familia osoaren partetik.

BERGARA
Roberto Mouro
Apirilaren 27an, 16 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.

BERGARA
Elene Etxaniz
Apirilaren 29an, 12 urte. Zorionak eta urte askotarako! Kuadrillakuak.

BERGARA
Ekai Manjon Saizar
Apirilaren 30ean, 3 urte. Urte askotarako! Familiakoak.

BERGARA
Martin Azpiazu
Maiatzaren 1ean, 8 urte. Urte askotarako! Familiakoak.

BERGARA
Olatz Ibabe
Maiatzaren 1ean, 10 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta bereziki Mireiak.

BERGARA
Endika Ibaibarriaga
Maiatzaren 2an, urtea. Zorionak! Familiakoak, bereziki, Ziortza, Iker eta Josu.

BERGARA
Lorea Palacios
Maiatzaren 3an, 7 urte. Zorionak! Gurasoak eta lagunak.

BERGARA
Julen Cabo
Maiatzaren 5ean, 4 urte. Zorionak! Familia osoaren partez.

BERGARA
Ruth Mancho
Maiatzaren 5ean, 6 urte. Urte askotarako! Gurasoak, Sara ahizpa eta lagunak.

BERGARA
Maider Gorosabel
Maitzaren 5ean, 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta bereziki Julen.

BERGARA
Gorka Ibarra
Maiatzaren 6an, urtebete. Zorionak! Etxekoak, bereziki Jone.

BERGARA
Ane Bretaña
Maiatzaren 7an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak, bereziki Andoni.

ARETXABALETA
Elene Carrillo
Apirilaren 26an, 5 urte. Zorionak! Familiakoak. Ondo pasatu.

ARETXABALETA
Jokin Isasisasmendi
Maiatzaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxekoak.

ARETXABALETA
Iñaki Carrillo
Apirilaren 5ean, 8 urte. Zorionak! Familiakoak. Ondo pasatu.

ARETXABALETA
Maialen Diez
Maiatzaren 7an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat. Gurasoak eta lagunak.

ESKORIATZA
Pablo Berezibar
Apirilak 29an 3 urte. Zorionak Martin eta Malennen partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak ASTELEHENEKO
GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia,
eta emaiozu ezusteko ederra!

sms mezuak

- Xuxen, zorionak! Goienako zure lankideen partez!
- Sertx, zorionak! Aspaldiko lagun baten partez! Ondo-ondo ospatu emazte berriarekin!
- Aitzorrotzen egon ziren mutil koadrilla majoari: datorren asteburuan beste irteera bat egingo diagu?
- Aintzane, barkatu. Ez zintudan zoriondu! Hau bai despistea! Hala ere, zorionak neska eta muxu handi-handi bat!
- Potxolo! Noizko beste holako asteburu 1? Nahiko nituzke betiko!
- SSak elkarrekin itzuliko dira asteon AEBtik. Amaitu da eztei-bidaia. Itzuli da errealitatea! Ondo etorri bioi eta zoriontsu izaten jarraitu betiko!

Baita SMS bidez ere!

Bidali mezua:
gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.

Hurrengo
Asteleheneko Goienkaria-n
irakurri ahal izango
du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

Jaiotakoak

Martxel Iria Korpion
Durango • 3,070 Kg.
Apirilak 22. Gurasoak: Mikel (Arrasate) eta Nerea (Abadiño). Argazkian: Martxel bapo lo.

Igotz Idigoras Anduaga
Aretxabaleta • 4,200 Kg.
Apirilak 25. Gurasoak: Jokin eta Idurre (Aretxabaleta). Argazkian: Igotz lo burua estalita.

Peio Lapuente Galdos
Eskoriatza • 2,990 Kg.
Apirilak 25. Gurasoak: Pedro eta Bea (Eskoriatza). Argazkian: Peio, Lorea arrebarekin.

Amets Gonzalez Elkorobarrutia
Gatzaga • 3,125 Kg.
Apirilak 26. Gurasoak: Mikel (Aretxabaleta) eta Dorleta (Gatzaga). Argazkian: Amets amaren besoetan.

Maria Solozabal Villoria
Ermua • 3,030 Kg.
Apirilak 26. Gurasoak: Josu (Ermua) eta Maria Jesus (Arrasate). Argazkian: Maria amaren alboan etzanda.

Ixone Barbero Altuna
Aretxabaleta • 2,380 Kg.
Apirilak 27. Gurasoak: Jose Ignacio (Aretxabaleta) eta Itxaso (Eskoriatza). Argazkian: Leire ahiztarekin.

Ioritz Zabaleta Kortazar
Oñati • 3,350 Kg.
Apirilak 27. Gurasoak: Joseba (Oñati) eta Josune (Eskoriatza). Argazkian: Aita-amak umearekin.

Mikel Alegria Beitia
Eskoriatza • 3,675 Kg.
Apirilak 27. Gurasoak: Asier eta Marijo (Eskoriatza). Argazkian: Mikel beso zabalik lo.

Eleder Fernandez Cebrino
Arrasate • 3,860 Kg.
Apirilak 27. Gurasoak: Oscar (Arrasate) eta Lucia (Aretxabaleta). Argazkian: Eleder amaren besoetan.



Peio Uribetxebarria Madinabeitia
Aretxabaleta • 3,750 Kg.
Apirilak 28. Gurasoak: Mikel eta Deiane (Aretxabaleta). Argazkian: Mireia lehengusinarekin.

Aratz Arenaza Irizar
Bergara • 3,820 Kg.
Apirilak 28. Gurasoak: Txema eta Maider (Bergara). Argazkian: Aratz bapo lo.

Hildakoak

Milagros Orobengoa Beitia
Aretxabaletan, apirilaren 29an. 94 urte.

ESKELAK
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN
82 euro
943 76 92 71

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
- Informatikan Ingeniaritza.
- Industri Ingeniaritza.
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

ARRASATEko Campusa
943 71 21 92

- maiatzak 5, 17:30etan.
- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
- Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

GOIERRIko Campusa
943 88 00 62

- apirilak 28, 17:30etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
  - Finantza Zuzendaritza.
  - Merkataritza Zuzendaritza.
  - Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOAko Campusa

- Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
  - Nazioarteko Merkataritza.
  - Enpresa Logistika eta Garraioa.

JARDUNALDI IREKIAK

OÑATIko Campusa
943 71 80 09

- maiatzak 12, 18:00etan.

BIDASOAko Campusa
943 63 91 29

- maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
  - Hizkuntzen Psikopedagogia.
  - Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
  - Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

ESKORIATZAko Campusa
943 71 41 57

- maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu

MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

Gaur irratian

Arrasate Irratia
FM 107.7

'Igo Autobusera' | 10:00

Elkarrizketa bilduma eskainiko dute
Ez dute zuzeneko saiorik egingo, jai dutelako. Horren ordez, elkarrizketa bilduma interesgarria prestatu dute: Nerea Urra, bertso udalekuen gainean; Nartxi Azkargorta, *Los Lunnies*-en gainean; Mikel Garaizabal, *catarvino.com*-i buruz... Bihar, 09:00etan, ohiko zuzeneko saioak.

Euskadi Irratia
FM 104.4

'Faktoria' | 10:30

Okupen eta emakumezko enpresarien kongresuak
Hainbat gai landuko dituzte: bulimiaren gainean ETBrako egiten dabiltzan erreportajeko egileekin berba egingo dute. Horrez gain, okupazioaren nazioarteko kongresua, eta emakumezko enpresariena aztertuko dituzte.

Oñati Irratia
FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:00

Jai dute. Euskadi Irratia egongo da entzungai.

Loiola Irratia
FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00-13:00

Debagoieneko albisteak batuko dituzte

Radio Euskadi
FM 98.2

'Más que palabras' | 09:05

Javier Vizcainoren magazina

Gaur telebistan

GOITB

Afrika Bi Bang abeslaria ilunpean saioan
19:45
Oihana Elortza kazetariak Afrika Bi Bang abeslariari elkarrizketa egingo dio Ilunpean saioan.

11:05 Filma: *Miserableak.*
12:00 Marrazki bizidunak: *Patrulla.* (Egubakoitzekoak emandakoaren errepikapena egingo dute).
12:55 Marrazki bizidunak: *Lazkaoko Txiki* ren saio beriarekin barrea ziurtatuta dago.
13:10 Eguzki Lore.
13:45 Ilunpean, Oihana Elortza kazetariak Afrika Bi Bang abeslariari elkarrizketa egingo dio.
14:15 Auñamendietan.
14:45 Filma.
15:30 Marrazki bizidunak. *Sherezade.*
16:45 Klip@.
17:00 Baneki. Mikel Aranburuk aurkeztutako umeendako kulturalehiaketa.
17:30 Jaun ta jabe telesailaren kapitulu berria.
18:00 Auñamendietan.
18:30 Marrazki bizidunak.
19:15 Baneki. Mikel Aranburuk aurkezten duen gazteei zuzendutako telebista saioa.
19:45 Derbia. Asteburuan Bergararen eta Aloña Mendiren arteko derbia izan da. Hori izango dute izpide.
21:00 Emisio amaiera.

ETB 1

'Sorginen Laratza' astelehenetan
22:25
Xabier Euzkitzek aurkezten duen saioa, *Sorginen Laratza*, astelehenetan emango dute aurrerantzean.

07:45 Tik Tak circus.
08:10 Betizu. *Ziegak eta herensugeak, Doug, Hirukiak, Doremiren magia, Kong eta Hitzelezko abentura, Katu kosmikoa eta Burdin aho.*
14:00 Gaur Egun. Lehen albistegia Maribel Aizarna eta Joseba Iriondoren eskutik.
14:40 Postdata.
14:45 Eguraldia.
14:55 Betizu. *Shin Chan eta Pokemon*-en marrazki bizidunak.
16:00 Bidaide.
18:00 Iparraldearen orena.
18:05 Betizu. *Beekerekeak, Garfield eta lagunak, Bizargorri* eta *Doraemon.*
20:00 Kamera ezkutua.
20:20 Eguraldia.
20:28 Gaur Egun.
21:05 Bertatik Bertara.
21:45 Goenkale.
22:25 Sorginen Laratza.
23:55 Eguna Iruditan.
00:00 Postdata.
00:05 Sautrela.
00:35 Teknopolis.
01:05 Egi bidean.
01:15 Bakarrik edo...
03:15 Bertatik Bertara.
03:45 E-Klipse@.
04:00 Esanak esan.
04:35 Euskal Herritik.

ETB 2

Galiziako uretan bizitako abentura
21:55
Operacion Gran Sol saioan DJ Paquo marinel lanetan ibiliko da astebetez, Galiziako uretan.

07:05 Del país de los vascos. *La Guardia.*
07:40 Rutas de solidaridad. *Costa de Marfil: El espejo de Africa.*
08:05 Embrujada.
08:55 Luar.
11:00 Stargate. *Enemigo mio.*
12:05 La cocina de Pedro Subijana.
12:15 Se ha escrito un crimen. *El cadáver político.*
13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
16:00 Cine aventura.
18:25 Siempre cine. Zehaztu bariko filma.
20:30 Euskal Herria: la mirada mágica.
20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.
21:50 Eguraldia.
21:55 Operación gran sol.
23:50 El día en imágenes.
23:55 Documental.
01:00 La zona muerta. *Una utopía* eta *La tormenta.*
02:40 Zoombados.
03:25 Date el bote.
06:00 Batalla de los sexos en el mundo animal.
06:30 Recetas de la abuela.

TVE 1

Ana ez joateko emergentzia plana
22:00
Anak etxetik alde egitea erabaki du, Fernandorekin daukan harremana jasangaitza da-eta. Umeek...

06:00 Canal 24 horas.
10:00 Saber vivir.
11:05 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
14:00 Informativo territorial.
14:30 Corazón de primavera. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
15:55 El tiempo.
16:55 Obsesión.
17:50 El enemigo en casa.
18:35 Cuentame como pasó. *Primeras tardes con Teresa.*
20:00 Gente.
21:00 Telediario 2.
21:55 El tiempo.
22:00 Ana y los siete. *Maniobras.* Anak etxe horretatik alde egitea erabaki du. Fernandorekin daukan harremana jasangaitza da. Umeak zaintzeko ordezko bila hasi da Fernando, baina umeek zerbait egin gura dute egoera horri buelta emateko.
23:30 59 segundos. Mamen Mendizabalekin.
01:30 Telediario 3.
02:00 Los vigilantes de la playa.
03:30 Canal 24 horas.

La 2



'En portada', ¿Quo vadis? Alemania
22:45
Azken sei hamarkadetan Alemaniak bizi izan dituen gertaera nagusiak landuko dituzte *En portada*-n.

07:15 That´s english.
07:30 Los Lunnis. *Tiroloco, Aventuras en pañales* eta *Tweenies.*
10:00 El joven Hercules.
10:30 Lois y Clark: Las nuevas aventuras de Superman.
12:00 Los vigilantes de la playa.
13:00 Los Lunnis. *Digimon, Arthur,* eta *La vaca Connie.*
15:15 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.
15:45 Grandes Documentales. *El almendro, el árbol de la vida.*
16:55 Frontera Límite. Manolo Linares eta Alvaro Bultórekin.
17:30 Los Lunnis.
19:15 Padres en apuros.
19:30 Revista A su salud.
20:00 Vida salvaje Africana.
20:30 Previo UEFA Champions League.
21:00 Vivir con Mr. Cooper.
21:30 Miradas 2.
21:55 Sorteo de la Bonoloto.
22:00 La 2 Noticias.
22:40 El Tiempo.
22:45 En portada. *¿Quo Vadis? Alemania.*
23:30 Estravagario.
00:30 Metropolis.
01:00 Radio3.
01:30 Ciencia cierta.
02:00 Ingenio natu.

Antena 3

'Pearl Harbor' El Peliculón film tartean
21:45
Filmak, 1941ean Pearl Harbor hegazkin-base ipar-amerikarrean gertatutako triskantza islatzen du.

06:00 Mi gorda bella.
07:15 Megatrix. *Power Rangers, Time Force, Hombre lobo en el campus, Zipi y Zape y Supernenas.* Eta, *Momo, una aventura contrarreloj* filma.
12:00 Megatrix. *Mi chica.* Zuzendaria: Howard Zieff. 1991. Macaulay Culkin, Dan Aykord, Jamie Lee Curtis. 11 urte dituen Verak aitak harreta handiagoa eskaintzea gura du. Horretarako, gaixo dagoela esaten du.
14:00 Los Simpson. *El cuarteto vocal de Homer* eta *El cabo del miedo.*
15:00 Noticias 1.
15:45 Cine. *Mandívulas.* Zuzendaria: Steve Miner. 1999. Bill Pullman, Bridget Fonda.
17:45 Cine. *Memorias de Africa.* Zuzendaria: Sydney Pollac. 1985. Meryl Streep, Robert Redford.
21:00 Noticias 2.
21:45 El peliculón. *Pearl Harbor.* Zuzendaria: Michael Bay. 2000. Ben Affleck, Kate Beckinsale. 1941ean, Pearl Harbor hegazkinbase ipar-amerikarrean gertatutakoa islatzen du filmak.
01:50 Noticias 3.
02:15 Televenta, salmenta saioa.

Tele 5

Lapurtutako ezpata baten bila 'CSI'-n
22:00
Hotel batean Samurai ezpata lapurtu dute, eta Grissom ibiliko da kasu horretan buru-belarri.

06:30 Alias. *Llévame* eta *Cipher.*
08:00 Matinal de cine. La familia Addams.
09:30 TV Top.
10:45 El programa de Ana Rosa.
14:30 Informativos Telecinco.
15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
16:30 La casa de tu vida. Laburpena.
17:00 A tu lado. Emma Garcia eta Felix Alvarezekin.
19:30 Alla tú. Jesus Vazquezekin.
20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustin Hernandez.
21:15 Pecado original.
22:00 C.S.I. Las Vegas. *Incautos.* Grissomek hotel batean egondako lapurreta ikertzen duen bitartean, Catherinek eta Warrick-ek gorpu bat aurkitzen dute etxe zahar batean.
23:00 CSI Miami. *Adictos y espitosos.*
00:00 Crónicas Marcianas.
02:20 Informativos Telecinco. Alvaro Rivasekin.
02:45 Madrugada de cine. *Espiritus inquietos.*

Astean GOITBn

Astelehena, 2

'Derbia' | 19:45

Preferente mailako derbia Goiena Telebistan
Behar gorrian dagoen Bergarak Aloña Mendi taldearen bisita izan du asteburuan Agorrosinen. Eta, norgehiagoka hori gaur iluntzean ikusi ahal izango duzue GOITBn.

Martitzena, 3

'Abesbatza' | 21:00

Ganbara abesbatzaren X. urteurreneko kontzertua
Oñatiko Ganbara abesbatzak hamar urte egin dituela-eta, kontzertua antolatu zuten Oñatiko pilotalekuan. Kontzertu horren emanaldia eskainiko dute ibarreko telebistan.

Eguaztena, 4

'Jaun ta jabe' | 21:30, 23:00

'Asteleheneko froga' izeneko kapitulua
Eguaztenean Joxe Antonio Arizkorreta lehendakariaren eta Ajuria Eneako kontuen gaineko beste kapitulu bat, *Asteleheneko froga* izenekoa, Goiena telebistan.

Eguena, 5

'Baneki' | 21:00

Ikusleendako SMS lehiaketarekin
GOITBk ibarreko gazteendako martxan jarri duen Baneki saioan ikusleek ere aukera dute euren etxetik esku hartzeko. Hori bai, sakelako telefonoa eskuan dutela.

Egubakoitza, 6

'Ilunpean' | 21:00, 22:30

Kike Amonarriz umorista kamara aurrean
Oihana Elortza kazetariak Kike Amonarriz umorista ekarriko du GOITBko platora. Aurkezle lanetan, berbaldiak ematen, liburuak idazten... ibiltzen da. Izango du zer kontatu.

Maiatzaren 2a: 041 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, maiatzak 2, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

EIBAR - ALMERIA futbol partidurako sei sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- Mila Ugarte Ugarte (Oñati)
- M. Karmen Lete Lazpiur (Bergara)
- J. Antonio Azpiazu (Oñati)
- J. Antonio Auzmendi (Arrasate)
- Emilio Lagunilla (Arrasate)
- Marivi Aginagalde (Arrasate)

LAUBURUA mahai jokoa Argia argitaletxearen eskutik.
- Gurea taberna (Aretxabaleta)

Bi sari Elgetako Espaloia antzokian maiatzak 6an, barikua, izango den bakarrizketarako, "QUIERO SER NORMAL" Joan Simonena.
- Alberto Elkoroiribe (Bergara)
- J. Antonio Elorriaga (Bergara)

Maiatzaren 9ko sariak

- Maiatzaren 13, 14 eta 15ean, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **MAGIA** ikuskizunerako bi sarrera (saridun bakoitzarendako bi).



- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

Euskal selekzioaren bideojokoa eta bufanda.

ASTELEHENEKO
Goienkaria

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea z/g • 20500 ARRASATE

Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa
Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: S.S.-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542
HARPIDETZA: 943 79 21 00 • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

ASTELEHENA
2005eko
maiatzaren
2a

Goizean: Eguzkia eta lainoak
Arratsaldean: Eguzkia eta lainoak

Hamarrekoa

JASONE OSORO I KAZETARIA

"Txarra naiz errepide mapak ulertzen, baina beti iristen naiz agindutako tokira"

Oihana Elortza

1. Nondik hasten zara egunkaria irakurtzen? Atzetik. Egunkariak zein aldizkariak, beti atzetik.

2. Horoskopoa irakurtzearren? Lehenengo azalari begiratzen diot, baina irakurri atzetik aurrera irakurtzen ditut, erosoago egiten zait. Agian gai arinetatik hasi nahi dudalako, ez dakit.

3. Atal denak irakurtzen dituzu? Aitortzen dut kirolen saila gainetik irakurtzen dudala. Gainerako atalei, berriz, arreta handiagoa jartzen diet.

4. Kirolaria ez zarelako izango da hori. Ez, ez naiz. Lehen ez nuen bat ere kirolik egiten eta duela urte gutxi spinning egiten hasi nintzen. Korrika eta igeri egitera ere joaten naiz batzuetan, baina gutxitan.

5. Gustatuko litzaizuke idazle izatetik bizitzea? Ez nago ziur. Nahiago dut kontatzeko zerbait dudanean idaztea, nahiz eta gustukoa izan, lana, lana da eta.

6. Zeren arabera erosten dituzu liburuak? Azaletan asko fijatzen naiz. Azalak erakartzen nau lehendabizi eta horren arabera kontra-azalak dakarrena irakurtzen dut. Gustatzen bazait erosi egiten dut eta bestela, lehengo tokian uzten dut. Aurrez zerbait irakurri badut, ordea, zuzenean joaten naiz erostera, azalari asko begiratu gabe.

7. Duzun orientazio txarrarekin, nola heltzen zara hitzorduetako tokietara? Errepideko mapak interpretatzen nahiko txarra naiz, baina egia esan, beti heltzen naiz nahi dudan tokira. Herrira heltzen ez dut problemarik izaten, baina herri barruan tokia bilatzen ibiltzen naiz gaizki. Azkenean, hala ere, beti heltzen naiz agindutako tokira.

8. Zein aktore aukeratuko zenituzke zuk zuzendutako pelikularendako? *Casablanca* asko gustatzen zait baina hori eginda dagoenez, agian *Greta*, nire liburua, ikusiko nuke gustura pantaila handian. Aktoreei buruz, berriz, ez da erraza aukeratzea baina Oskarren papererako, Alberto San Juan aukeratuko nuke.

OIHANA ELORTZA

Liburuaren eguna pasatu dela eta, tertulia batean parte hartzera etorri da Jasone Osoro aste honetan Oñatira. Kultura-etxera sartu eta berehala erreparatu dio argitasunari, berritasunari. Eraikinen diseinuetan asko fijatzen da elgoibartarra eta oporretara doanean ere XV. mendeko elizetan baino gehiago erreparatzen du eraikin modernoen itxuran.

9. Egin diozu kasu telebista gabeko asteari? Ez, aste honetan ere ikusi dut. Kontua ez da aste batean telebista ikusi gabe egotea; ez dut uste telebista txarra denik, aukera egin behar da soilik.

10. Oso zorrotza zara zeure buruarekin? Batzuetan bai, lan kontuekin batez ere. Hala ere hain zorrotza ez izaten ikasi dut denborarekin; gauzak lasai hartzea ere garrantzitsua da.

Biharamuna

Eñaut Arriaran

Maiatza polita da

Maiatza hilabete polita da. Loreduna, ederra. Hilaren lehenetik hasi eta amaitu arte jai eta ospakizunez betetako tartea. Hain da ederra loreen hila, ezen jai egunak domekan badira ere astelehenean ospatzen baititugu eguraldi ona aprobetxatzeko. Hala, San Andres auzoko jaiak ere luzatu egiten dira, seguru asko **Alberto Olmedo**k eskatuta, auzoko jaietan gustura ibiltzeko. Hor nonbait gainera entzun dut **Lander Lopez** ere gonbidatu duela bertako garagardoak dastatzera.

Baina eguraldi onak kaleak hustu ere egiten ditu. Ematen du, beroak urtu egiten gaituela eta horregatik herriko harresietatik ihes egiten dugu patata tortilla eta arroz entsalada hartuta. Gure herria jendeak osatzen badu, herria lekuz aldatzen dugu. Gure mugarriak aldatu egiten ditugu. **Iker** eta **Maider** ere kanpoan izan dira asteburuan. Geure aita eta amarekin ere ezin izango dugu loreen garairik disfrutatu, Benidormen emango dituztelako lau aste. Benidormera joan dira bai. Erretiratuen neurrigabekeriaren hirira. Eguzki, hondartza eta txikiteo euskaldunaren euskal koloniara Espainiaren barrenean. Aurten faltan botako dute **Joxe Aranburu** *jostun ausarta*. Bertan sortu zuten lagunartea murriztu da haren faltarekin, baina lagun guztiek agindu dute topa egingo dutela haren oroimenez eta gustatzen zitzaizkion bertsoak kantatuko dituztela.

Ondo hasi derrepentean etorri zaigun uda, halaxe joango daeta.

Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.
Labegaraieta Industrialdea BERGARA.
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.